

HELDUAK

xume bizitza aukeratu, beste batzuek
bizitzeko aukera izan dezaten



HELDUAK

KANPAINA INSTITUZIONALA **2012-2013**

Edukia

Animatzailearen Gida

HELDUENTZIAKO material
didaktikoen aurkezpena

3

Ikus-entzunezko aurkezpenerako gidoia

Cáritasen 2012-2013 Kanpaina

7

1. Lan dokumentua

Eredu ekonomiko eta sozial berri baterantz

13

2. Lan dokumentua

Nor bizi da hor? Pertsona xume baten etxea

19

3. Lan dokumentua Xume bizi

Doakotasunaren moneta
zirkulazioan ipinita

24

4. Lan dokumentua

24 ordu BIZITZEKO

BIZI xumez betetzeko eta
xumetasunez BIZIA kutsatzeko

27

5. Lan dokumentua

Krisia, langabezia eta
Cáritasen borrokatu nahi dugun lana

31

6. Lan dokumentua

Cáritasen ahotsak pobreziaren aurka

34

Cáritasen otoitz proposamena

Komunitate eta taldeen otoitzerako gidoia

36

Hileroko KEINU-EKINTZARAKO proposamena

8 kanpai-hots beste mundu bat posible egiteko

45

HELDUENTZAKO material didaktikoen aurkezpena

Bizi garen mundu honetan gero eta sendoagoak dira desberdintasun sozialen hormak. Gero eta altuagoak dira lan duina eta egonkorra izateko bideak ixten dituzten hormak. Gero eta gaindiezinagoak dira isolatuta eta, geureari begira, geure baitan itxita bizitzera garamatzaten hormak. Horrelako munduan, Cáritasek, kristau komunitatearen izenean, ekonomia eta gizarte eredu berri bat du amets eta horren alde egin nahi du lan, hormak eraiki ordez bota egingo dituen.

Horretaz kontzientzia hartu eta sentsibilizatzeko, joan den urtean kanpaina bat egin zuen Cáritasek goiburu honekin: *"Xume bizitza aukeratu, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten"*. Aurtengo kanpaina eta material didaktikoak ere ildo horretatik doaz, hau da, xume bizitza Ekonomia eta Gizarte Eredu berri bat posible izan dadin.

Kontsumo-gizarte hau mugiarazten duena, gaur egungo eredu ekonomikoa, hauxe da: askok ederki bizi nahi dute munduko beste toki batzuetan edo geure herrian bertan pobre bizitzera kondenatuta daudenen lepotik, eta, gainera, planeta kutsatuz eta hondatuz, orain arte sekula ezagutu ez den bezala.

Aberatsen moduan bizi nahi horrek krisi ekonomiko globalera eraman gaitu, gure ahalbideen gainetik gastatu, xahutu eta zorpetu garelako. Eta beti bezala, bizimodu horren ondorioak sufritzen dituztenak gizarte-kolektibo babesgabe eta ahulenak dira, horiek dira krisia ordaintzen dutenak: langabezia, murrizketak gastu sozialetan, etab.

Errealitate horren aurrean, Cáritasen Kanpainak XUME BIZITZEA proposatzen du, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten. Bada garaia geldiune bat egin eta geure buruari zintzo galdetzeko: Aberatsen moduan bizi nahi dut ala xume bizi nahi dut, bizitza DUINA izateko behar denarekin bakarrik?

Galdera horri emandako erantzunak eragina izango du lana ulertzeko moduan (*zertarako egiten dugu lan?*), eta besteekiko harremanetan (*gure ongizate munduan itxita bizi gara edo komunitatea sortzeko irekita gaude?*).

Xume bizitza ez da kontu material hutsa, gauza gutxi edukitzearekin konformatzea; pertsonaren izate osoa hartzen duen zerbait da. Bizi AUKERA bat egitea esan nahi du; KONPROMISO pertsonala da, Eredu Ekonomiko eta Sozialak sustatzen dituen balioen KONTRA bizitzekoa, ebanjelioko xumetasunaren balioa praktikan jarriz, horrek esan nahi duen guztiarekin, hau da, gizatasuna kendu eta bizitza pertsonalean eta harremanetan funtsezkoa eta garrantzizkoa den guztitik urruntzen gaituena alde batera uztea, mundu hobe bat posible egiteko, *"justiziaren bizileku izango diren zero-lur berriak egiteko"* (2P 3, 13).



Hemen eskaintzen ditugun material didaktikoen bidez, helduen taldeei lagundu nahi diegu, gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak ezartzen digun bizimodua, kontzienteki eta erabakimenez, alde batera utzi eta korrontearen kontra doan bizimodu ebanjelikoa aukeratu dezaten. Xumetasunaren ekintzaile izateko gonbidapena dira, bizitzan benetan funtsezkoa den horretan jarduteko, zentzu sakona ematen dion horretan, norberaren zoriona eta ingurukoaren zoriona eta ongizatea benetan dakarren hori zaintzen eta lantzen.

Material didaktiko hauek tresna praktikoa eta soila izan nahi dute, konturatu gaitzen xumetasunaren indarra, ebanjeliko xumetasunaren indarra, geure eskuetan dagoela; indar horrekin, xumeki, Eredu Ekonomiko eta Soziala aldatu ahalko dugu. **Horrela bakarrik izango gara munduarentzat argia** (Mt5, 14), lekuko izateko beste bizimodu bat posible dela.

Ondoren, kanpaina honen edukiak eta mezua helduekin lantzeko materialak eta proposamenak aurkeztuko ditugu.

Material didaktikoak

Ikus-entzunezko Kanpaina aurkezteko gidoia

Kanpaina aurkezteko ekitaldiak antolatu, mezua zabaldu eta ahalik eta jende gehien sentsibilizatzeko, erantsitako **cd**-an ikus-entzunezko muntaia bat aurkeztu dugu, power point formatuan. Elementu horri esker, animatzaileak modu arin eta atseginean aurkeztu ahal izango du kanpaina. Animatzaileak aurkezpenerako gidoia aurkituko du hemen. Bertan adierazten zaio zer esan behar duen ikus-entzunezko muntaiaiko diapositiba bakoitzean. Aurkezpenak laburrago edo ikus-entzunezko gabe egiteko aukerak ere baditu. (*Gutxi gorabeherako iraupena: 25 minutu.*)

1. Lan dokumentua

Kanpainaren ikus-entzunezkoaren bidezko aurkezpena aztertzeke eta sakontzeko

Lan-dokumentu horren bidez, kanpainaren ikus-entzunezko aurkezpenean ikusitako edukia taldean aztertzeke aukera eman nahi dugu. Elkarriketa, hausnarketa eta iritzi-trukea bideratu nahi dugu, aberatsen moduan bizi nahiak mugiarazten duen mundu honen errealitatearen aurrean. Horren aurrean, nagusitu den bizimodu hori alde batera uztea proposatzen dugu, kritiko izatea, inplikatzeko eta xumetasunaren ekintzaile izatea, joera nagusiaren kontra joatea, Itxaropenaren argia izateko.

2. Lan dokumentua

Nor bizi da hor?

Pertsona xume baten etxea

Lan dokumentu honen bidez, norberaren izaera eta bizimodua pertsona xume baten izaerarekin eta bizimoduarekin konparatzen lagundu nahi dugu. Hausnarketarako argibideak ematen dira, konturatzeko nola bizi garen eta zer esan nahi duen xume bizitzeak. Bizimodu xume baten aukera pertsonala egiteko gonbidapena da.

3. Lan dokumentua

Xume bizi, Doakotasunaren moneta zirkulazioan ipinita

Lan dokumentu honen helburua da ikusaraztea gure ingurua gizatiarrago bihurtzeko baliabide ugari ditugula eta ezin ditugula alferrik galtzen utzi. Besteekin erlazionatzeko daukagun moduaren bidez, sare eta gizarte-ingurune gizatiarragoak, komunitarioagoak, anaikorragoak eta osasungarriagoak sortzen lagundu dezakegu. Horren kontzientzia hartu eta horren arabera jokatzeko urrats handi bat da ekonomia eta gizarte-eredu berri bat eraikitzeko. Lan dokumentu honetako edukiek horixe erakutsi nahi dute: bide horretatik abiatzen bagara, beste mundu bat posible egiten ari garela, bizi garen tokian behintzat.

4. Lan dokumentua

24 ordu Bizitzeko

Biziz betetzeko eta xumetasunez Bizia kutsatzeko

Gaur egungo bizimoduaren ezaugarri nagusia korrika eta presaka bizitzea da. Lan dokumentu honetan, presazko bizimodua alde batera utzi eta gure eguneroko jardunean Bizi tarteak hartzeko proposamena egiten da. Hausnarketa eta elkarrizketa sortu nahi dugu Bizi tarte horien premiaz eta horiek gabe bizitzeak dituen ondorioez, aldatzeko erabakiak hartzera bultzatzeko, denon eskura baitago joera nagusien kontra bizitzen hastea, beste bizimodu erreal bat egiteko, konpromiso zehatzak hartuta.

5. Lan dokumentua

Krisia, langabezia eta Cáritasen borrokatu nahi dugun lana

Lan dokumentu honen bidez, hausnarketa eragin nahi dugu gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak lan mundura ekarri dituen ondorio gaiztoez eta lanari ematen dion zentzuaz. Horren aurrean Cáritasek duen jarrera azaldu nahi dugu; hau da, denoi duintasunez bizitzeko aukera emango digun lan-eredua sustatzea, pertsona gisa errealizatzeko eta guztion onerako lan egiteko, horrela ulertu eta bizi dugun lana zorion-iturria baita.



6. Lan dokumentua

Cáritasen ahotsak pobreziaaren aurka

Lan dokumentu honen xedea da Milurtekoko Garapen Helburuak ez betetzeari buruz sentsibilizatzea, bizi dugun larrialdi humanitario globalaren kontzientzia hartzea, eta pertsona bakoitza ekintza zehatzetan eta bizimodu aldaketan mobilizatzen eta inplikatzen laguntzea, besteek bizitzeko aukera izan dezaten.

Cáritasen otoitz proposamena

Komunitate eta taldeen otoitzerako gidoa

Hemen proposatzen dugun otoitzaren bidez, parrokiako komunitate osoa eta kristau-elkarte guztiak gonbidatzen ditugu, konfiantza osoz Jainkoaren eskuetan jarri eta haren presentziaren doinua aditu dezaten, norberaren bizitzako gertaeretan entzun dezaten gugandik zer nahi duen, hartara, haren eskuetako tresna izan gaitezen eta mundu hobea, anaikorragoa, justuagoa, Jainkoaren Erreinuaren ispilu izango dena, egin dezagun.

Kanpainako hileroko Keinu-ekintzarako proposamena

8 kanpai-hots beste mundu bat posible egiteko

Besteek bizitzeko aukera izango badute, gure bizimodua aldatzeaz gain, mobilizatu eta justizia exijitu behar dugu. Keinu honen xedea da parrokiako komunitateak Milurtekoko Garapen Helburuen gaineko kontzientzia hartzea, eta komunitate horrek mundu hobe bat posible egiteko duen borondatea eta konpromisoa publikoki ikusarazteko bidea ematea. Keinu-ekintza hau hilean behin egitea proposatzen da. *(Ikastetxeetan edo elkarteetan ere egin daiteke).*

Cáritasen 2012-2013 kanpaina

Kanpaina behar den tokian aurkezteko, animatzaileak gidoi lagungarri bat dauka hemen, diapositiba bakoitzari buruz egin beharreko komentarioekin. Hemen ageri diren komentarioak orientatzeko baino ez dira; animatzaileak horiek ulertu eta bere estiloa ematea da kontua.

Ikus-entzunezko aurkezpen honek 25 minutu inguru irauten du. Kanpainaren aurkezpen azkarragoa edo laburragoa egin behar dutenek (10 minutu ingurukoa) alde batera utziko dituzte 26, 28, 31, 32 eta 33 diapositibak, eta aurkezpen-gida honetan proposatzen diren komentarioak ere laburtu egingo dituzte. Power pointa proiektatzeko baliabide teknikorik ez badago edo talde txiki bati aurkeztu behar bazaio, fotokopiatuta emango zaie helduen koadernoko 1. lan dokumentua, kanpainaren aurkezpena horren laguntzaz egiteko.

1. Diapositiba

Bizi garen mundu honetan desberdintasun sozialen hormak gero eta sendoagoak dira.

Bizi garen mundu honetan gero eta altuagoak dira lan duina eta egonkorra lortzeko bideak ixten dituzten hormak.

Bizi garen mundu honetan gero eta gaindiezinagoak dira isolatuta eta geure baitan itxita, geureari begira, bizitzera garamatzaten hormak.

Horrelako munduan, Cáritasek, ekonomia eta gizarte eredu berri bat du amets eta horren alde egin nahi du lan, hormak eraiki ordez bota egingo dituena.

Horretaz kontzientzia hartu eta sentsibilizatzeko, joan den urtean kanpaina bat egin zuen Cáritasek goiburua honekin: "Xume bizitzea aukeratu, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten". Aurtengo kanpaina ere ildo hori sakontzera dator, hau da, xume bizitzea gizarte berri bat egin ahal izateko.



2. Diapositiba

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio badu, irudi honekin laburtu genezake gaur egun mundu osoa gobernatzen eta zuzentzen duen sistema ekonomikoak ematen digun konfiantza.

Mundua nola dagoen ikusita, susmoa daukagu sistema hori mugitzen duten interesak ez direla herritar guztien ongizatea bilatzea, "artaldeaz" probetxua ateratzea baizik.

3. Diapositiba

Bizi garen sistema ekonomiko eta sozial honek ume-umetatik irakatsi digu xume bizitzearen aurkako eredu.

4. Diapositiba

Bizi zaitetz oparo eta eroso, ahalik eta konfort handienarekin. Amets hori betetzeko egiten da lan.

5. Diapositiba

Zenbat eta gehiago eduki zoriontsuago izango zara, horretarako da dirua. Publizitateak esango dizu zer egin eta nora joan, ondo daki zer komeni zaizun.

6. Diapositiba

Zu zeurera. Zeu ondo zauden bitartean, ez dago arazorik. Ez zaitetz ezertan nahastu.

7. Diapositiba

Diruak agintzen du eta gobernatzen du pertsona askoren bizitzan eta helburuetan.

8. Diapositiba

... Eta lepoak mozten hasi ziren. Eta "handikeria" asko, oparo bizi nahi asko, lurrera etorri ziren. Zenbat jende eta zenbat herrialde beren ahalbideen gainera bizitzen...



9. Diapositiba

(Edukia irakurri).

10. Diapositiba

Orduan larrialdi plana aktibatu zuten berehala. Badakizue zein den larrialdi-irteera sistema ekonomikoa krisian dagoenean edo bere irabaziak arriskuan ikusten dituzenean? (*hurrengo diapositibara joan*).

11. Diapositiba

Hauek dira oparo bizi nahiaren ondorioak... kontsumitzen eta "Sistema jauna" zerbitzatzen eta gurtzen bizi diren ondorioak. Ondorio hauetara ekarri gaitu gaur egungo bizimoduak, oparo bizi nahiak eta ametsak. Beti izan da horrela, baina orain kontua da Sistemak sortzen dituen baztertu pila horiek oso gertukoak ditugula, bete-betean harrapatzen gaituela eta etxean ditugula.

Krisiaren aurretik, baztertu pila horiek Hegoaldeko herri pobretuetan zeuden edo gure hirietako auzo eta alde ahaztuetan.

Sartuta gauden eredu ekonomiko eta sozial honek errugabeko biktimak sortzen ditu, eta batez ere kolektibo ahulenak, hauskorrenak eta babes gutxien dutenak harrapatzen ditu. Horiek dira krisia ordaintzen dutenak. Milioika pobre, milioika langabe, gastu sozialen murrizketak (bizi izan den xahutze aldia eurek eragin balute bezala).

Eta Milurtekoko Garapen Helburuak, munduan pobrezia eta gosea kentzeko data 2015ean ezarrita zutenak, betetzetik oso urruti daude, herrialde pobretuen garapenerako laguntzetan murrizketak egin direlako.

Beti bezala, pertsona ahulenak dira krisia ordaintzen dutenak, pobreenak, dirua parrastaka xahutu ez dutenak, bitzita duin bat izatea beste ametsik izan ez dutenak.

12. Diapositiba

Mundu hau gobernatzen duen sistema ekonomikoari ez dio eskuak dardara egiten pobrezia, bazterkeria, desberdintasuna, sufrimendua, babesgabetasuna, heriotza eragiten duten erabakiak hartzerakoan.

Axola zaion gauza bakarra da ekonomiaren zifrak salbatzea, eta horretarako hainbat pertsona sobera badaude, alde batera uzten dira, pobrezia eta bazterkeria kondentatuta, pertsonak ez dutelako garrantzirik, pertsonak ez direlako behinena; pertsonak ekonomiaren zerbitzura daude, eta ekonomia txarto doanean, diru-goseak eta zekentasunak "zakua urratu" duelako, sobera dauden pertsonak, ahulenak, sakrifkatzen dira.

Okerrena da, ekonomia ondo zihoanean, pobreek ez zutela onurarik ikusi; pobrezia zifrak, Espainian eta mundu osoan, eskandaluzkoak ziren krisiaren aurreko oparoaldian ere.



13-23. Diapositiba

(Edukia irakurri eta komentatu).

24. Diapositiba

Krisi garaiotan ohikoa da komunikabideetan aberatsak agertzea beren luxuzko etxe ederrak harro erakusten, pertsona gehienek lortu ezin duten bizi-maila handikeriaz erakusten. Lotsarik gabe erakusten dute beren etxe eskusiboen intimitatea, ez dute lotsarik gastuei begiratu gabe daramaten bizimodua agertzeko, badakitelako pertsona gehienek ametsa oparo bizitzea dela eurek adina diru izango balute.

Azken finean, gure gizartean agintzen duen balio nagusia, jakinaren gainean edo jakin gabe jende askoren nahia ezartzen duena, ABERATSEN MODUAN BIZITZEA delako. Gutxi dira bizitzako aukera moduan XUME bizitzea erabaki dutenak. Gutxi dira bizitza XUMEAREN EKINTZAILEAK.

Askotan gertatu ohi da, norbaitek zorte ona izan eta esku artean dirutza ikusten duenean, sekulako aldaketa egitea bere bizitzan: gama altuko autoa, luxuzko etxea, markako arropa, bidaiak handiak, etab. Bere ezkutuko edo ageriko ametsa gauzatzen hasten da, aberatsen moduan bizitzen.

Azkenean, kontsumo-gizarte hau mugiarazten duena, gaur egungo eredu ekonomikoa, hau da: askok ederki bizi nahi dute munduko beste toki batzuetan edo geure herrian bertan pobre bizitzera kondenatuta daudenen lepotik; eta planeta kutsatuz eta hondatuz, orain arte sekula ezagutu ez den bezala.

25-26. Diapositiba

(Edukia irakurri eta komentatu).


27. Diapositiba

Euroa ondasun materialen moneta da. Doakotasuna, berriz, ondasun humanizatzaileen moneta, harreman-ondasunena. Nigandik besteari eman diezaiokedan guztia. Moneta horrek kalitatea eta berotasuna ematen die gizakion arteko harremanei, sendotu eta finkatu egiten ditu. Sareak eta gizarte-inguruneak ehuntzen laguntzen du, ingurune gizatiarragoak, komunitarioagoak, anaikorragoak.

28. Diapositiba

Euroak txanponak eta billeteak ditu, moneta osatzen duten balio ezberdinak erakusteko. Sinbolikoki, txanponen eta billeteen bidez adierazi nahi izan dugu Doakotasunaren moneta, berau osatzen duten balioak eta jarrerak erakusteko.

Hauk dira Doakotasunaren monetak dituen txanponak eta billeteak: *(irakurri egingo dira)*.



Doakotasunaren monetak eragin humanizatzaile handia du, eta harremanetan ere eragiten du. Horregatik, ondorio positiboak ditu ondasun materialen monetan ere. Moneta horren desbideratzeak zuzentzen ditu eta gizartea eta ekonomia gizatiarrago egiten laguntzen du, gizakiari lehentasuna emanda eta zaindu beharreko lehen kapital gisa jarrita.

Eguneroko harremanetan Doakotasunaren moneta erabiltzea gauza xume bat da, baina urrats erabakigarria izan daiteke gizatiarragoa eta humanizatzaileagoa izango den Ekonomia eta Gizarte Eredu berri baterantz. Moneta horretan izugarri aberats eta milioi askoren jabe izan gaitzke.

29. Diapositiba


Gaur egungo bizimoduaren ezaugarri nagusia korrika eta presaka bizitzea da. Oso ohikoa da presaka eta estresatuta ibiltzea, mila gauza egiten.

Abiadura gurtzen dugu, baina horrek ez gaitu pertsona hobe bihurtzen. Hainbat gauza egiten ditugu egunean zehar, baina ez dugu gozatzen eta dastatzen egiten duguna. Hainbat denbora ematen dugu mila zereginetan, baina agian alde batera uzten ditugu bizitzako gauzarik ederrenak, bizitzaren funtsa gordetzen duten horiek, normalean gauza xumeetan ezkututzen baita.

30. Diapositiba

Pascalek esaten zuen: "Ohartu naiz gizakien zoritxar guztia gauza bakar batetik datorrela, aspertu egiten gara gela batean geldi egoten, isilik egoten." Isiltasunerako, bakardaderako, nor bere buruarekin egoteko denbora, hori da gaur egungo kulturaren falta zaiguna. Eta horretarako denborarik ez dagoenean, nork bere burua lantzeko astirik ez badu, besteekin ditugun giza harremanak ahuldu eta sakontasuna galtzen dute, azaleko eta hutsal bihurtzen dira, norberaren bizitza ere azalekoa eta hutsal delako.

Gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak, mugarik gabeko hazkundera eta kontsumoan oinarrituta dagoenez, ez du BIZITZEKO tarterik uzten, ez zaio interesatzen gure barnetasuna, gure sakontasun pertsonala landu dezagun; izan ere, horrela hobeto kontrolatzen gaitu, mendeen hartzen gaitu, bere kontsumo-gizartearen pentzutan eta zerbitzura jartzen gaitu.





31. Diapositiba

Cáritasetik, eredu honek ezartzen digun bizi-erritmoa apurtzea proposatzen dugu, alternatiboak izatea, kontrako bidetik joatea. 24 orduak BIZIARI eskaintzea proposatzen dugu, hau da, egiazko BIZIAZ betetzen gaituen horretan ematea gure denbora, gure ingurukoei BIZIA ematen eta kutsatzen laguntzen duen horretan.

Xume bizitzeak esan nahi du gure egunerokotasuna BIZI tartez betetzen uztea. Eta zeintzuk dira BIZI tarte horiek? Hona hemen 24 BIZI ordu, BIZITZA BETEA ETA ZORIONTSUA izateko eta kutsatzeko, giza kalitatea emateko:

(Edukia irakurri).

32. Diapositiba

(Edukia irakurri).

33. Diapositiba

(Edukia irakurri eta komentatu).

34. Diapositiba


Gogoratu dezagun Cáritasen kanpainak proposatzen diguna:

- Kontsumismoaren olatu gainean bizitzeari uztea, edukitzeko eta jabe izateko irrika alde batera uztea, eta xume bizitzeko aukera egitea, xumetasunaren ekintzaile izateko.
- Bizimodu individualistarekin haustea, neure interesen munduan itxita egoteari uztea, eta Doakotasunaren moneta zirkulazioan jartzea, harreman-ondasunak hazi daitezen.
- Presaka eta bizitzako gauzarik ederrenei jaramon egin gabe bizitzeari uztea, eta biziari zor zaion denbora eskaintzea, biziz betetzeko eta Bizia kutsatzeko.

35. Diapositiba

(Edukia irakurri eta komentatu).

(Kanpainaren aurkezpena amaitutakoan, parte-hartzaile bakoitzari Xumetasunaren Testa ageri den orri fotokopiatu bana eman ahal zaio, etxean bete dezaten). Edo bestela, aurkezpenaren edukia sakontzen eta hausnartzen jarraitzeko astia badute, helduen koadernoko 1. lan dokumentua emango zaie fotokopiatuta.



1. Lan dokumentua

Irredu ekonomiko eta sozial berri baterantz




1. Egungo sistema ekonomikoa **EZ DA FIDATZEKOA**. Ez du nahi XUMETASUNEZ bizi gaitzen.



2. Sistemak esaten digu: lan egin **ABERATSEN MODUAN** bizitzeko, ongizatearen munduan giltzapetuta. Zuk dena merezi duzu. Horretarako egiten duzu lan.




3. **BIZI ABERATSEN MODUAN**, kontsumituz. Zugatik pentsatzen dugu. Erosi punta-puntako produktu guztiak. Horretarako egiten duzu lan.



4. **BIZI ABERATSEN MODUAN**, munduan gertatzen denaz kezkatu gabe.



5. **BIZI ABERATSEN MODUAN**, Sistemaren jauna gurtuz. Fedea izan behar duzu beragan. Eskaini zure denbora eta ahalegina. Sistema zoriontsu da zure fideltasun eta debozioarekin.



6. ... baina sistemaren **KRISIA** heldu zen... eta sistemaren jaunak alarma egoera deitu zuen, bere burua salbatzeko...



LARRIALDIA



KRISI SAKAGAILUA



**SISTEMA EKONOMIKOTIK
IRTETEKO LARRIALDI IRTEERA**




NAHIKOA DA!



**LARRIALDI
DEIA**



**BAZTERTUNTZAKO
LARRIALDI-OHATILA**



7. Sistemak pertsona ahulena **alde batera** uzten ditu.

8. PERTSONAK DIRA OINARRIZKOENA. Ez gaitzazue gutxi batzuen mesedetan erabili, nahikoa da!

Zaindu eta baloratu beharreko lehenengo kapitala GIZAKIA da, bere osotasunean: Izan ere, gizon eta emakumeak dira eragileak, zentroa, eta gizarte eta ekonomi jarduera guztien xedea".
(Caritas in veritate 25. zenbakia)

9. Egungo krisiak eta garapenak dituen arazoen sintesi humanista berri bat eskatzen dute, hazkunde ekonomikoak, teknikaren absolutizazioak eta giza espiritualtasunaren murrizketak eragin dizkiguten arazo ekonomikoak eta desbideratzeak gainditzeko, eta etorkizun hobea eraikitzeke oinarritzko balioak lortzeko. Baliorik oinarritzkoena **pertsonaren duintasuna** da.
(Caritas in veritate 21. eta 27. zenbakiak)

10. CÁRITAS kristau komunitatearen konpromiso antolatua da, Sistemak BAZTERTUTAKO PERTSONEI arreta, laguntza eta laguntasuna eman eta **DUINTASUNA** itzuli ahal izateko.



11. Gaur egun, bazterkeria-iturri nagusia LANGABEZIA da, eredu ekonomikoak eragindakoa. Milioika langabetu daude, eta horren aurrean, hainbat ekimen irten dira parroketako eta Elizbarrutiko Cáritasetatik:

Lana bilatzen laguntzea; lan arloko orientazioa eta informazioa ematea; langabetuen arteko topaguneak eta laguntza taldeak sustatzea; Cáritas zentroak dauden inguruetako enpresa eta enplegatzaileen lan-eskaintzak kaptatu edo jasotzea; ikastaro edo informazio-tailerrak egitea sustatzea; autoenplegua babestea, aholkularitza, mikro-kreditu eta abarren bidez; laneratze enpresak sortuz edo babestuz; komunitatea sentsibilizatuz, inplikatur eta mobilizatuz, lan eskaintzak edo bestelakoak zabaltzeko harreman eta informazio sareak sortzeko.

CÁRITASen izenean, lanaren alde egingo dugu, guztiok aukera hauek izan ditzagun: DUINTASUNEZ bizitzeko, pertsona bezala errealizatzeko, guztion ondasuna aberasteko aukerak. Ez dugu ABERATSEN MODUAN bizitzea xede duen lana sustatu nahi, baizik eta DUINTASUNEZ eta xumetasunez bizitzea xede duena.



12. CÁRITAS topagunea da PERTSONA KONPROMETITU eta SINESDUNENTZAT. Bertara jotzen dute, baztertuekin batera, sistema ekonomiko eta sozial hau aldatzeko.



13. Baina zer egin dezaket nik sistema hau aldatzeko?
Nondik hasi?



14. Cáritasek zure esku dagoen zerbaít egitea proposatzen dizu...



LARRIALDI IRTEERA

15. Sistema aldatzeko, lehenengo zugandik hasi behar duzu, eta Sistemak zugan eraiki duena apurtu.



XUMETASUNAREN mailua Sistema apurtzeko

16. XUMETASUNAREN mailua hartu egungo eredu ekonomiko eta sozialak inposatzen digun bizi-estiloarekin apurtzeko, eta aldaketa sustatzeko... gure esku dagoen neurrian.




17. KONTSUMISMOAREN olatuan igota bizitzeari eta gero eta gauza gehiago EDUKI nahi izateari uztea...



... eta bizitzaren XUMETASUNAREN AKTIBISTA izateko aukera pertsonala egitea.




18. Modu INDIVIDUALISTAN, bakoitza bere airera, bere interesen pentzura bizitzeari uztea.



... eta Doakotasunaren moneta zirkulazioan ipintzea, pertsonen arteko erlazio-ondasunak hazteko.

19. "Gaur egun, gizateria lehen baino askoz ere interaktiboago azaltzen da. Komunitate handi horrek benetan elkartuta egon behar du... famili handi bateko kide izan daitezela, benetan elkartuta lan eginez eta biziz, eta ez bakarrik bata bestearen ondoan bizi diren pertsonak bezala (...) Gizakia pertsonen arteko ekintzetan errealizatzen da, bere espirituari dagokionez. Zenbat eta modu autentikoagoan bizi, orduan eta heldutasun handiagoa izango du nortasun pertsonalak. Pertsonak besteekin eta Jainkoarekin harremanetan jarriz hartzen du balioa."
(Caritas in Veritate, 53. zk.)




20. ZIZTU BIZIAN eta bizitzako gauza garrantzitsuei arreta eskaini gabe bizitzeari uztea...

21. "Gizakiaren eta herriaren garapena arazo espiritualei ematen zaien konponbideen arabera ere bada.

Garapenak, aurrerabide materialaz gain, aurrerabide espirituala ekarri behar du, gizakia bakarra baita gorputz eta ariman... gizakia garatu egiten da espiritualki hazten denean, bere arima eta Jainkoak beragan inprimatu dien egia ezagutzen dituenean, eta norberarekin eta Sortzailearekin solas egiten duenean (...) Ongizatearen gizartea, materialki garatua, baina arima (espiritua) zapaltzen duena, ez dago benetako garapen batera ondo orientatuta." (Caritas in Veritate, 76. zk.)

22. Cáritasek hemen proposatutako guztiarekin apurtzen baduzu, XUMETASUNEZ biziko zara, eta beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten lagunduko duzu.



23.
XUMETASUNAREN boterea daukagu gure esku. Horren bidez, eredu ekonomiko eta sozial hau aldatu ahal izango dugu. **"Zuek zarete munduarentzat argia" (Mt 5,14) ... Bizitzeko beste modu bat posible dela ikus dezagun.**



Elkarrizketa eta hausnarketarako galderak

1. Dokumentuan ageri diren ideia, esaldi edo irudietatik zeintzuk nabarmendu edo azpimarratuko zenituzke duten mezuagatik edo eragin dizuten gogoetarik?
2. Binetetan ageri diren irudietatik aukeratu bi, bizi garen mundu honen errealitatea adierazteko. Zergatik aukeratu dituzu?
3. Erraza edo zaila al da xumetasunaren mailua hartu eta egungo eredu ekonomiko eta sozialak ezartzen digun bizimodua haustea? Zergatik?
4. Harremanetarako edo elkarbizitzarako inguruan dituzun taldeek (lanean, familian, lagunak, ezagunak, elkarteak, komunitatea...) nola hartzen dute bizitza xumearen gaia? Asko edo gutxi dira bizimodu kontsumista, indibidualista eta presazko honi amore ematen diotenak?
5. "Munduarentzat argia" izateko, beste bizimolde baten lekuko izateko, esan, hemendik aurrera zer gauza zehatz egin dezakegu, bizitza xumearen ekintzaile konbentzituak bezala jarduteko? Egin zerrenda bat eta, gero, bakoitzak bere buruari galdetu: zerk eragozten dit gauza horiek oraintxe bertan egiten hastea?
6. Zertan datza Ebanjelioan kristauei proposatzen zaien xumetasun ebanjelikoa? Ba al du zerikusirik aurreko galderan egindako zerrendarekin?



2. Lan dokumentua

Nor bizi da hor? Pertsona xume baten etxea

Krisi garaiotan ohikoa da komunikabideetan aberatsak agertzea beren luxuzko etxe ederrak harro erakusten, pertsona gehienek lortu ezin duten bizi-maila handikeriaz erakusten. Lotsarik gabe erakusten dute beren etxe eskusiboen intimitatea, ez dute lotsarik gastuei begiratu gabe daramaten bizimodua agertzeko, badakitelako gizarte honetan pertsona askoren ametsa haiek bezala oparo bizi zela.

Azken finean, gure gizartean agintzen duen balio nagusia, jakinaren gainean edo jakin gabe jende askoren nahia ezartzen duena, **ABERATSEN MODUAN BIZITZEA** da. Gutxi dira bizitzako aukera moduan **XUME** bizi zela erabaki dutenak. Gutxi dira bizitza **XUMEAREN EKINTZAILEAK**.

Askotan gertatu ohi da, norbaitek zorte ona izan eta esku artean dirutza ikusten duenean, sekulako aldaketa egitea bere bizitzan: gama altuko autoa, luxuzko etxea, markako arropa, bidaiak handiak, etab. Bere ezkutuko edo ageriko ametsa gauzatzen hasten da, aberatsen moduan bizitzen.

Kontsumo-gizarteak badaki oparo bizi zela amets hori elikatzen, eta diru gutxi badaukagu ere, etengabeko publizitatearen bidez, aberatsen "MODUAN" bizi zela aukera saldu nahi digu. (*Krisiaren aurretik, kontsumitzeko bazen, krediturako erraztasun guztiak ematen ziren, gure amets guztiak bete ahal izateko*). Erosteko ahalmena edo kreditua eskatzekoa igo ahala, auto hobea, etxe hobea, arropa hobea erosteko aukera genuen.

Azken finean, kontsumo-gizarte hau mugiarazten duena, gaur egungo eredu ekonomikoa, horixe baita: askok ederki bizi nahi dute munduko beste toki batzuetan edo geure herrian bertan pobre bizitzera kondenatuta daudenen lepotik (*giza familiaren hiru laurden pobrezian bizi dira*); eta, gainera, planeta kutsatuz eta hondatuz, orain arte sekula ezagutu ez den bezala.

Aberatsen moduan bizi nahi horrek krisi ekonomiko globalera eramán gaitu, gure ahalbideen gainetik gastatu, xahutu eta zorpetu garelako. Eta beti bezala, bizimodu horren ondorioak eta eragina sufritzen dutenak gizarteko kolektibo ahulenak eta babesgabeenak dira, horiek dira krisia ordaintzen dutenak:





xume bizitzea aukeratu, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten

langabezia, gastu sozialetan egindako murrizketak, etab.

Errealitate latz horren aurrean, Cáritasen kanpainak XUME BIZITZEA proposatzen du, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten. Bada garaia geldiune bat egin eta geure buruari zintzo galdetzeko: **Aberatsen moduan bizi nahi dut ala xume bizi nahi dut, bizitza DUINA izateko behar denarekin bakarrik?**

Badakigu zer den oparo bizitzea edo oparo bizi nahi izatea, eta zer-nolako ondorioak dakartzan mundura. Baina zer da xume bizitzea? Zer ondorio ditu?

Xume bizitzea ez da kontu material hutsa, gauza gutxi edukitzearekin konformatzea, pertsonaren izate osoa hartzen duen zerbait da. Bizi AUKERA bat egitea eskatzen du; KONPROMISO pertsonala eskatzen du, egungo ereduak sustatzen dituen balioen KONTRAKO BIDEKIK bizitzeko estilo bat.



Hausnarketarako eta eztabaidarako:

1. Zer puntutaraino zaude edo gaude oparo bizitzeko nahi horrek kutsatuta?
2. Zer puntutaraino eragiten digu edo amore ematen dugu kontsumo-gizarte horren aurrean, publizitate eta moden aurrean? Libreak al gara?
3. Korrontearen kontra goaz ala korronteak eramaten gaitu?

Pertsona xumeak hautu hori egiten du, konpromiso hori hartzen du, horrela bizitzeko gero zoriontsuagoa eta libreagoa dela sentitzen duelako, norbera delako, eta mundu hau humanizatzen laguntzen duelako, bere inguru hurbiletik hasita. Pertsona xume bat bizi den tokian, bera doan tokian, xumetasun inguru bat sortzen du, hormarik eta sabairik gabea, baina gizatasunez betea, aterpea, beroa eta berotasuna ematen duena. Dagoen lekuan dagoela, eta nornahi aurkituta ere, etxe-giroa duten "etxeak" sortzen ditu.




Orain ezagutuko dugu pertsona xume bat nola bizi den eta nolakoa den. Bere etxean sartu eta hango barnealdea ezagutuko dugu, benetako aberastasuna non dagoen ikusteko. (Mt 6,19-21)

Nor bizi da hor?



Pertsona xume batek bere etxea irekiko digu...

1. **Pertsona xumeak** gauza gutxi behar ditu zoriontsu izateko, duintasunez bizitzeko. Ez du behar faltsurik sortzen eta ez dio inori uzten halakorik sortzen. Soiltasuna bizi du bizi-aukera gisa.
2. **Pertsona xumea** beti dago adi eta prest bere bihotza gauza materialetatik eta mendekotasun emozionaletatik askatzeko eta aldentzeko.
3. **Pertsona xumeak** bihotz guztia jartzen du ingurukoaren bizitza atsegina egiten duten eguneroko gauza txikietan.
4. **Pertsona xumea** hunkitu egiten da lagun hurkoaren sufrimenduari eta harekin inplikatu da, bera den guztia eta daukan guztia emanez, dituen ahalbideen arabera. Ez ditu bidegabekeriak onartzen. Ez da axolagabe edo ezer egin gabe gelditzen.
5. **Pertsona xumea** gardena eta benetakoa da, eta sinesten, sentitzen, esaten eta egiten duenarekin koherentea. Bere buruarekin harmonian bizi da, eta bakea eta harmonia transmititzen du.
6. **Pertsona xumeak** ez du nahi lehenengo posturik ez ohorerik, apal zerbitzatzea baizik.
7. **Pertsona xumea** eskuzabala da; doakotasuna bizi eta praktikatu du.
8. **Pertsona xumeak** bihotz zabala, adeitsua eta abegitsua du.
9. **Pertsona xumeak** gauza xumeekin gozatu du; xehetasunei erreparatu die; orainaldi bakoitza dastatu du; presarik gabe bizi da.
10. **Pertsona xumea** beti dago prest ikasteko, hazteko eta bizitzaren misterioan sakontzeko.
11. **Pertsona xumeak** bere akatsak eta hutsegiteak onartzen ditu.
12. **Pertsona xumeak** beti dauka irribarrea ezpainetan. Nekeetan irria ezpainetan.
13. **Pertsona xumea** aberatsa da gizatasunean eta sentikortasunean. Erne dago inguruan gertatu dena sumatzeko. Kontzientzia kritikoa du eta horren arabera jokatu du.





14. **Pertsona xumea** hunkitu egiten da Naturaren eta Biziaren edertasuna ikusten duenean: txorien kantua, lorearen fintasuna, gau izartsua, ilunabarra, ume baten irribarra...
15. **Pertsona xumeak** portaera etiko eta morala dauka, zuzenean edo zeharka, inori kalterik ez egiteko.
16. **Pertsona xumearekin** bizitza gozamena da, nahiago duelako guztien ona, berea baino.
17. **Pertsona xumeak** ez du protagonismorik nahi, ezta denen begiradapean egon ere. Nahiago du protagonismoa eta parte-hartzea besteari eman. Besteari norbait dela eta berezia dela sentiarazten dio.
18. **Pertsona xumeak** bihotzez entzuten eta hitz egiten daki.
19. **Pertsona xumeak** ahula eta hauskorra dela ematen du, baina barruko indar handia dauka zoritxarrei, oztopoei eta liskarrei aurre egiteko. Indarkeria eza praktikatzen du, adore handiz eta azken ondorioetaraino.
20. **Pertsona xumeak** egia maite du eta egia esaten du, nahiz eta bere kalterako izan edo bere aurka joan. Ez du inolako gezurrik onartzen, eta ez da geldirik egoten gezur baten aurrean.
21. **Pertsona xumeak** hitzez baino gehiago adierazten du egitez. Ez da harrokerietan ibiltzen, egin egiten du.
22. **Pertsona xumeak** harrituta eta lekuz kanpo uzten ditu erabili, edo menderatu nahi dutenak edo inozotzat hartzen dutenak.
23. **Pertsona xumeak** badaki besteari barkatzen gorrotorik gabe, badaki bere buruari barkatzen, eta badaki barkamena eskatzen.
24. **Pertsona xumeak** bizirik mantentzen du barruan daraman haurra, eta ez du galtzen ilusiorako eta harridurarako gaitasuna.
25. **Pertsona xumea** egunero ahalegintzen da bizitza honetan ona egiten. Ez du mundutik alde egin nahi apur bat hobeto utziko duen zerbait egin gabe, bere esku dagoen heinean behintzat.
26. **Pertsona xumea** Jainkoaz fidaturik eta haren eskuetan jarrita bizi da, badakielako hura gabe ez dela ezer.
27. **Pertsona xumeak** badaki hauskorra eta ahula dela, bere mugak eta gabeziak dituela, baina pozik bizi da, sentitzen duelako Jainko Aita-Amak den bezala maite duela.
28. **Pertsona xumeak** apal-apal aitortzen du bere dohainak, gaitasunak eta ondasunak Jainkoaren oparia direla inguruko onerako eta mesederako.
29. **Pertsona xumeak** esker oneko hitzak esaten dizkio egunero Jainkoari, egunero, uneoro, hainbeste opari egiten dizkiolako.
30. **Pertsona xumeak** isiltasun-uneak behar ditu, bere burua eta bere baitan bizi duen Jainkoa aurkitzeko.

Hausnarketarako eta taldean iritziak trukatzeko:

1. Zer iruditu zaizkizu pertsona xume bat nolakoa den azaldu nahi duten 30 deskribapenak? Besterik gehituko zenuke?
2. Hemen ageri diren deskribapenetatik aipatu 5, zure ustez, xume bizitzeko ezinbestekoak edo funtsezkoak direnak.
3. Pertsona xumetzat daukazu zeure burua? Zeintzuk dira gehien identifikatzen zaren 5 deskribapenak eta gehien kostatzen zaizun beste 5ak? Aipatu bete-betean bizi nahiko zenituzkeen 3 deskribapen.
4. Pertsona xume asko ezagutzen dituzu? Zer izen propio datozkizu burura deskribapen hauek irakurtzean? Zer sentitzen dugu edo nola sentitzen gara haiekin gaudenean?
5. Jende xumeak mundua alda dezake?
6. Xumetasunaren testa:

30 deskribapenetan eman zeure buruari 1etik 10erako puntuazioa, gutxi edo asko bizi dituzun heinean (0 = ezer ez eta 10 = gehiena). (Fededuna ez bazara, azkeneko 5 deskribapenak aldatu edo egokitu egin ditzakezu, zure uste edo ideien arabera). Gero egin puntu guztien batuketa, zure xumetasun-maila gutxi gorabehera zenbatekoa den ikusteko. Emaitzaren arabera, erabaki ezazu 30 deskribapenetatik zeintzuetan ahaleginduko zaren puntuazioa hobetzen hurrengo hilabetean.

- **0etik 75era arteko puntuazioa:** pertsona ez oso xumea edo batere xumea ez dena. Kontsumo-gizarte honetan nagusi diren eta gizarte hau mugitzen duten balioek agintzen dute berarengan.
- **75etik 150era arteko puntuazioa:** xumetasun-maila apaleko pertsona, baina badu aukera bere buruari indar egiteko eta kontsumo-gizartearen bizimoduak eta balioek berarengan duten eragin handia gainditzeko.
- **150etik 225era arteko puntuazioa:** pertsona honen izaeran eta bizimoduan xumetasuna da nagusi, baina oraindik aukera kontzientea eta irmoa egin behar du xumetasunaren bidean aurrera egiteko.
- **225etik 300era arteko puntuazioa:** pertsona hau xumetasunaren ekintzailea da. Xume bizitzeko aukera argia eta kontzientea egin du.



3. Lan dokumentua

Xume bizi, Doakotasunaren moneta zirkulazioan ipinita



Doakotasunaren zentimo 1



Doakotasunaren 2 zentimo



Doakotasunaren 5 zentimo



Doakotasunaren 10 zentimo



Doakotasunaren 20 zentimo




Doakotasunaren 50 zentimo



Doakotasunaren oso bat



Doakotasunaren 2 oso





Euroa ondasun materialen moneta da. Doakotasuna ordea, gizatiar egiten gaituzten ondasunen moneta da, harreman-ondasunena. Hori da nigandik besteari eman diezaiokedan guztia. Moneta horrek kalitatea eta berotasuna ematen die gizakion harremanei, sendotu eta finkatu egiten ditu. Gizarte-sareak eta inguruneak ehuntzen laguntzen du, ingurune gizatiarragoak, komunitarioagoak, anaikorragoak, osasungarriagoak. Doakotasunaren monetak eragin humanizatzaile handia du, eta harremanetan ere eragiten du. Horregatik, ondorio positiboak ditu ondasun materialen monetan ere. Moneta horren desbideratzeak zuzentzen ditu eta gizartea eta ekonomia gizatiarrago egiten laguntzen du, gizakiari lehentasuna emanda eta zaindu beharreko lehenengo kapital gisa jarrita.

Eguneroko harremanetan Doakotasunaren moneta erabiltzea gauza xume bat da, baina urrats erabakigarria izan daiteke gizatiarragoa eta humanizatzaileagoa izango den Ekonomia eta Gizarte Eredu berri baterantz. Ezin dugu mundu osoa aldatu, baina bai bizi garen eta elkarbizitza egiten dugun lursail txikia. Geure baitan eta geure esku dago hori egitea.

Moneta hori pertsona orok egin dezake eta norberaren bihotzeko bankuak jaulkitzen du. Zure Doakotasunaren moneta sendoa izango da eta balio handiko kotizazioa izango du Giza Harremanen Merkatuan, baldin eta zure bihotzeko bankuan funts onak badituzu, balio seguruetan inbertitzen baduzu, hau da, BALIO HUMANIZATZAILEETAN ETA BALIO ESPIRITUALETAN. Horrela eginez gero, moneta hori ez da agortuko. Zenbat eta gehiago eman, gehiago daukazu, Bihotzeko Bankua gero eta handiagoa da eta Doakotasun gehiago jaulkitzen du. Doakotasunaren monetarekin egindako eragiketa guztietan, behin eta berriro egiaztatuko duzu: *“Zorion gehiago du emateak hartzeak baino”* (Apost. Eginak 20, 35). Doakotasunaren moneta honetan ez dago txanpon txikirik, txanponik xeheenak ere benetako mirariak egin ditzake, bihotzez ematen bada.

Baina kontuz ibili behar da, izan ere, Doakotasunaren moneta oso erraz debaluatzen da Bihotzaren Bankua atzean ez badago, hau da, gauzak ez badira bihotzez eta uste osoz egiten, sinesten, sentitzen eta egiten dugunarekin koherente izanik. Bestela, fartsan eta faltsukerian erortzen gara, eta moneta hori “zabor funts” bihurtzen da, hau da, ez du ezertarako balio (Ikus: 1 Ko 13,1-3).

Doakotasunaren monetak berezitasun nabarmen bat dauka, fededunei abantaila eta berme handia ematen diena. Izan ere, pertsona bakoitzaren Bihotzeko Bankua ez ezik, Banku Zentrala ere badago, Jainkoaren bihotz muinean kokatua. Berak hornitzen du gizaki oro Doakotasunaren monetaz, funts galdurako eta interesik gabeko transferentziak eginez etengabe, funts horiek egunero injektatuz pertsona bakoitzaren bihotzean (Ikus: Erm 5,5).

Mugagabeko funtsak dira eta bermatuta daude egunero moneta hori erabiltzea aukeratzen dutenentzat. KONFIANTZA handia ematen du, krisiaren aurkako babesa baitu, eta oso errentagarritasun interesgarria eskaintzen du epe luzera: ITXAROPENAREN dibisa. Horrela, zalantzarik gabe, posible da beste mundu bat egitea. (Ikus: Lk 17, 20-21; Mt 6, 19-21).



Hausnarketa eta elkarrizketarako ariketak

1. Saiatu zaitezte Doakotasunaren txanpon eta billete bakoitzaren esanahiari azalpen erraz bat bilatzen, haren ezaugarri edo osagai diren elementuak aipatuz. Azalpen erraz hori emateko, txanpon edo billete horren balioaren azpitik dauden txanpon edo billeteen hitz guztiak erabiliko dituzue. Adibidez, **Maitatu eta zoriontsu egitea** zer den edo horretarako zer behar den azaldu nahi badugu, Doakotasunaren 500 puntuko billetearen azpitik dauden hitz guztiak erabiliko ditugu deskribapenean, eta beharrezkoa dela ikusiz gero, elementu gehiago erabiliko ditugu. Enpatia zer den azaldu nahi badugu, Doakotasunaren monetan 50 zentimoko txanponaren azpitik dauden hitzak erabiliko ditugu.
2. Pentsa ezazu nolako eragina izan dezakeen sufrimendu edo arazo batengatik lur jota eta larrituta dagoen pertsona batengan, norbaitengandik Doakotasunaren txanpon bat edo billete bat doan jasotzen badu. Pentsa ezazu zeure historia pertsonalean: Zer eragin gogoratzen dituzu? Zer eragin izan zuten zugar besteengandik jasotako Doakotasun ekintzek, nahiz eta oso txikiak izan?
3. Egin ezazue zerrenda bat Doakotasunaren moneta erabiltzeak pertsonengan, familian, gizartean eta munduan eragiten dituen edo sortzen dituen Harreman Ondasunekin, Ondasun Humanizatzaile edo Osasungarri guztiekin. Burtsako panel bat irudikatu dezakegu kotizatzen duten enpresa guztiekin, baina hemen, enpresen ordez, Ondasun guztiz berezi eta Balio izugarria duten horiek ipiniko ditugu; eta horien alboan ipini dezakegu Ondasun hori zenbateraino ari den ezartzen pertsonengan, familian, gizartean eta munduan.
4. Zein Baliotan oinarritzen da zure Bihotzeko Bankua?
5. Zer hipotekak edo zer faktura sinbolikok harrapatu eta xurgatu dezake Bihotzeko Bankua eguneroko bizitzan Doakotasunaren moneta jaulki ezinik eta egin ezinik uzteko, Doakotasunaren likidezia agortu arte?
6. Gogoratzen al duzu noiz erabili dituzun azkenekoz Doakotasunaren txanponak eta billeteak? Idatzi ezazu txanpon edo billete bakoitzaren ondoan txanpon edo billete hori eman diozun azken pertsonaren izena.
7. Gogoratzen al duzu noiz eman dizkizun azkenekoz norbaitek Doakotasunaren txanponak eta billeteak? Idatzi ezazu txanpon edo billete bakoitzaren ondoan txanpon edo billete hori eman dizun azken pertsonaren izena. Eskertu zenion? Zer eragin izan zuen zugar? Ez zaizkizu oharkabea pasatu besteek doan eman dizkizuten gauza asko?
8. Esan dugun bezala, moneta hori pertsona bakoitzak egiten du eta bere Bihotzeko Bankuak jaulkitzen du. Doakotasunaren moneta pertsonala fisikoki fabrikatu ahal bazenu, zer sinbolo, irudi, marrazki, goiburu edo hitz nahiko zenuke txanponetan agertzea? Zu zer zaren eta zure bihotza zerk mugiarazten duen adierazi beharko luke. Izan zaitez sortzaile eta fabrikatu itzazu.
9. Nolako harremana duzu Banku Zentralarekin?
10. Bila itzazu Doakotasunaren moneta azaltzen duen testuan ageri diren ebanjelioko aipuak. Zer hausnarketa eragiten dizute? Nola bizi dituzue? Jabetzen al zarete Banku Zentraletik egunero jasotzen ditugun transferentziekin?
11. Ebanjelioak arakatu eta bilatu Nazaretoko Jesusek nortzuekin erabili zituen Doakotasunaren txanponak eta billeteak.

4. Lan dokumentua

24 ordu BIZITZEKO BIZI xumez betetzeko eta xumetasunez BIZIA kutsatzeko

Gaur egungo bizimoduaren ezaugarri nagusia korrika eta presaka bizitzea da. Oso ohikoa da presaka eta estresatuta ibiltzea, mila gauza egiten. Gaur egungo kulturak gurtu egiten ditu abiadura eta hiperaktibitatea. Lehenak, azkarrak, erabakitzaileak eta eraginkorrak izatea eta denbora errentagarri bihurtzea dira gaur egun lanean eta gizartean arrakasta izateko gakoak.

Horrez gain, mendebaldeko gizarteetan ingurune naturaletik deskonektatuta bizi gara eta Naturaren erritmo eta zikloetatik urrun gaude. (*Zer urrun dagoen baserri giroko bizimodua, Naturarekin harmonian, lasaitasunez eta kalitatez bizitzea*). Hiriak anonimo bihurtzen dira eta geure interesen unibertso partikularrean bakartuta bizi gara. Presa da gure ekintza guztien motorra.

Abiadura gurtzen dugu, baina horrek ez gaitu pertsona hobeak egiten. Hainbat gauza egiten ditugu egunean zehar, baina ez dugu gozatzen eta dastatzen egiten duguna. Gandhik esaten zuen: *“Bada bizitzan abiadura handitzea baino gauza garrantzitsuagorik.”* Hainbat denbora ematen dugu mila zereginetan, baina agian alde batera uzten ditugu bizitzako gauzarik ederrenak, bizitzaren funtsa gordetzen duten horiek, normalean funts hori gauza xumeetan ezkututzen baita.

Sarritan izaten gara kexu denborarik ez daukagulako. Oso pertsona lanpetuak gara, eta harro gaude horretaz, gizartean eta lanean arrakastaren seinale delako. Beti dauzkagu agendak beteta, eta bestela bete egiten ditugu nola edo hala, denbora-tarte hutsak edo zereginik gabekoak izurria direlako, ez dugu nahi halakorik ez gaudelako eroso, ez daude ondo ikusiak, ez dira emankorrak, probetxugarriak edo dibertigarriak.

Pascalek esaten zuen: *“Ohartu naiz gizakien zoritxar guztia gauza bakar batetik datorrela, aspertu egiten gara gela batean geldi egoten, isilik egoten.”* Isiltasunerako, bakardaderako, nor bere buruarekin egoteko denbora, hori da gaur egungo kulturaren falta zaiguna. Eta horretarako denborarik ez dagoenean, nork bere burua lantzeko astirik ez badu, besteekin ditugun giza harremanak ahuldu eta sakontasuna galtzen dute, azaleko eta hutsal bihurtzen dira, norberaren bizitza ere azalekoa eta hutsal delako.

Gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak, mugarik gabeko hazkundean eta kontsumoan oinarrituta dagoenez, ez du BIZITZEKO tarterik uzten, ez zaio interesatzen gure barnetasuna, gure sakontasun pertsonala landu dezagun; izan ere, horrela hobeto kontrolatzen gaitu, mendean hartzen gaitu, bere kontsumo-gizartearen pentzutara eta zerbitzura jartzen gaitu.

Kultura modernoa “transzendentzia ezaren” eta “dibertimenduaren” kultura da, pertsona bere baitatik ateratzen du, gizakiak bere bihotzean dauzkan gai sakonak ahaztera darama, eta transzendentziaren misterioari ateak ixten dizkio.





San Agustinek IV. mendean esaten zuenaz bestera, hots, “ez irten zeure baitatik, egia zeure baitan bizi da”, gaur egun ezartzen zaigun eredia geure baitatik kanpora bizitza da. Ez da erraza gizarte modernoaren azalekotasunak eragiten duen hutsunea bizitza. Presaka bizi den gizarte honetatik sortutako pertsona hutsalak ez daki isiltasuna eramaten. Gorroto ditu lasaitasuna eta bakardadea. Gauzak eta jardueraz bete nahi du, bere hutsuneari adi ez jartzeko.

Barne-bizitzarik gabe, helbururik eta zentzurik gabe, normala da pertsonak bere hutsune existentziala betetzeko edo eramangarriago egiteko gauzak bilatzea. Eta hor erabateko arrakasta dauka kontsumoaren gizarteak. Gizarte horrek ezin konta ahala eskaintza ditu gure hutsuneak “betetzeko” edo, hobe esan, ezkutatze, estaltze, gordetze, sorgortze. Hutsune horiek, ordea, ez dira sekula betetzen kontsumitzen ditugun produktuekin eta aisialdi-eskaintzekin. Ase gabe uzten dute beti eta kontsumitzen jarraitzea behartzen dute.

Horrelaxe eduki nahi gaitu gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak: azaleko eta ase gabe, BIZITZEKO eta BIZIA lantzeko tarterik gabe...

Cáritasetik, gaur egungo Eredu horrek ezartzen digun bizi-erritmoa apurtzea proposatzen dugu, alternatiboak izatea, kontrako bidetik joatea. 24 orduak BIZIARI eskaintzea proposatzen dugu, hau da, egiazko BIZIAZ betetzen gaituen horretan ematea gure denbora, gure inguruko BIZIA ematen eta kutsatzen laguntzen duen horretan.

Xume bizitzeak esan nahi du gure egunerokotasuna BIZI tartez betetzen uztea. Eta zeintzuk dira BIZI tarte horiek? Hona hemen 24 BIZI ordu, BIZITZA BETEA ETA ZORIONTSUA izateko eta kutsatzeko, giza kalitatea emateko:

1. ordua: **Bakardaderako, pentsatzeko, nork bere burua aurkitzeko denbora.**
2. ordua: **Elkartzeko eta kalitatezko giza harremanetarako denbora.**
3. ordua: **Jolaserako, festarako eta poztasunerako denbora.**
4. ordua: **Naturaz gozatzeko eta hari begira egoteko denbora.**
5. ordua: **Adiskidetasunerako denbora.**
6. ordua: **Familiarentzako denbora.**
7. ordua: **Lanerako denbora, duintasunez bizitzeko mantenu zuzena irabazteko.**
8. ordua: **Atsedenerako eta sosegurako denbora.**
9. ordua: **Maitasunerako, samurtasunerako, ontasunerako, barkamenerako, anaitasuna zaintzeko denbora.**
10. ordua: **Nork bere burua zaintzeko, kirola egiteko, lasai paseatzeko denbora.**
11. ordua: **Errebolta eta protesta profetikorako denbora, mundu berri baten alde borrokatzeko.**
12. ordua: **Konpromiso solidarioarako denbora, nire denbora partekatzeko.**
13. ordua: **Modu osasungarrian elikatzeko denbora.**
14. ordua: **Komunitatean, elkarteetan eta herritar gisa parte hartzeko denbora.**
15. ordua: **Otoitzerako denbora, gure baitan bizi den eta inguratzen gaituen jainkoaren presentziarekin elkartzeko denbora.**
16. ordua: **Sorkuntzarako denbora, gauzak modu berritzailean, beste era batera, ez betiko moduan egiteko denbora.**
17. ordua: **Gauza berriak ikasteko, hazten jarraitzeko denbora.**
18. ordua: **Zaletasunak lantzeko denbora.**
19. ordua: **Nire denbora oparitzea edo ematea behar dutenentzako denbora.**
20. ordua: **Baikortasunerako, irri egiteko, barre egiteko eta umore osasungarriarako denbora.**
21. ordua: **Entzuteko, elkarrizketarako eta konfidentziarako denbora.**
22. ordua: **Irakurketaz gozatzeko eta elikatzeko denbora.**
23. ordua: **Nahi dena egiteko denbora librea.**
24. ordua: **Presarik gabe ibiltzeko denbora.**



Hausnarketa eta elkarrizketarako

1. Lan dokumentu honetan irakurri duzunik zer nabarmenduko edo azpimarratuko zenuke? Zer hausnarketa eragiten dizu edo sortzen zaizu? Zer galdera sortzen zaizkizu?
2. Azkarregi eta presaka bizi zara... edo korrontearen kontra zoaz?
3. Nola bizi duzu 24 BIZI orduetako bakoitza? Ordu bakoitzaren ondoan idatzi: **Asko, Nahiko, Gutxi, Ezer ez, Gehiago nahi nuke**, zure bizitzan horretan ematen duzun denboraren arabera. Pozik zaude emaitzarekin? Zergatik? Zertan saiatuko zinateke hobetzen?
4. Alda dezakegu gaur egungo eredu ekonomiko eta soziala, gure denbora bizitzeko modua aldatuta?
5. Irakurri ezazue arretaz *slow* mugimenduari buruzko esperientzia hau, eta komentatu zer iruditzen zaizuen eta zer iradokitzen dizuen. Azpimarratu esaldi deigarrienak edo hausnarketa eragin dizuetenak.

Slow (astiro) mugimendua bizitzeko filosofia bat da, bizimolde edo bizi-estilo lasai, arrazional eta gizatiar baten aldeko apustua egiten duena. Orain dela hamarkada batzuk sortu zen, egungo bizimoduak ezartzen digun bizitza azkarregi honi aurre egiteko.

Carl Honoré da mundu mailako mugimendu horren teorikoetako bat eta gizakiaren zereginik arruntenetan ere erritmo lasaia proposatzen du. Londresen bizi den kazetari kanadar horren ustez, bizitza azkarra azaleko bizitza da; beraz, haren ustez, astiro bizitzeak ez du zerikusirik eraginkortasun ezarekin, orekarekin baizik.

Madrilgo Unibertsitateko Filosofia Moralaren irakasle Jorge Riechmannek dionez, *“abiaduraren gurtza iparralde aberatsaren gaitz bat da eta mundu osoa kutsatzeko joera du; gaur egungo bizitzan badira hainbat elementu, azkartasunarekin konbinatuta, azalekotasunera bultzatzen gaituztenak.”*

Bestalde, *slow* mugimenduak hiri lasaiak sustatzen ditu, hau da, hiri txikiak edo 50.000 biztanle baino gehiago ez duten herriak, bizimodu lasaiago, arrazionalago, osoago, iraunkorrago eta gizatiarrago baten alde egiten dutenak.

Ehunetik gora dira, oraingoz, hiri lasaien nazioarteko sarea osatzen duten hiriak (Cittaslow), eta horietatik zazpi Espainian daude: Pals, Begur eta Palafrugell, Gironan; Bigastro, Alicanten; Rubielos de Mora, Teruelen; eta Mungia eta Lekeitio, Bizkaian.

Herri eta hiri horiek ez diete teknologia berriei uko egiten, horien zentzuzko erabilerak bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duelako; garapen iraunkorraren alde egiten dute, energia berriztagarrien alde, tradizioak berreskuratu eta zaintzearen alde. Hirigintza basatia baztertzen dute, eta zaratari, zikinkerari eta uraren erabilera zentzugabeari aurre egiten diote.

Hiri horiek bizimodu osasungarriagoa, lasaiagoa eta iraunkorrago bultzatzen dute, ez hain frenetikoak, bizimodu gizatiarragoa eta ekologikoagoa, solidarioagoa. Labur esanda, bertako biztanleen eta bisitarien “bizimodu onaren” aldeko apustua.





Hona hemen Carl Honoré egindako elkarrizketaren zati bat, El Periódico de Cataluña egunkarian argitaratu zena:

(Carl Honoré)

— Behinola, ohartu nintzen oso azkar ari nintzela irakurtzen ipuina nire semeari, orriak saltatzen nituela, nire posta begiratu nahi nuelako ordenagailuan eta beste mila gauza egin. Ikaratu egin nintzen. Eta slow mugimenduarekiko interesa sortu zitzaidan.

(Kazetaria)

— Zer egin behar dugu? Erlojua zakarretara bota?

— Abiadura gurtu beharrean gelditasuna gurtzea errakuntza litzateke. Nire proposamena da gauza bakoitzari merezi duen denbora ematea. Abiadura moteltzea.

— Premiazko neurri bat.

— Telebista itzaltzea; batez beste, europar batek lau ordu ematen ditu telebistaren aurrean. Papera eta lapitza hartu, eguneroko zereginekin zerrenda bat osatu, eta beharrezkoak ez direnak ezabatzen hasi. Beldur diogu geldid egoteari. Lasterbideak bilatzen ditugu. Kantitatea kalitatearen aurretik jartzen dugu. Eta slow mugimenduak kalitatea jartzen du kantitatearen aurretik.

— Zuk balaztari eman diozu?

— Horixe eman diodala! Eta orain energia gehiago daukat. Konektatuago sentitzen naiz denarekin. Hobeto pasatzen dut. Gozatu egin behar da bizitzaz, ez bizirik iraun. Denbora kontzeptuaren iraultza kultur iraultza berri bat da.

— Kronos han zegoen greziar mitologian...

— Dena okertzen hasi zen herrietako plazetan erlojuak jarri zituztenean. Orduak egituratzeko legeak jarri ziren. Harrezkero denborak gu geu neurtzen gaitu. Gero teknologiak okerrago jarri zuen kontua, eta, horrela, gizarte honetan haserretu egiten da jendea gauzak ez badira saguaren abiaduran egiten.

— Are gehiago diozu, amorruren aroan gaudela.

— Bai. Estura horren eraginez, jendea beti dago lehertzeko zorian. Horrela, jende arrunta, jende ona, zoratu egin daiteke auto-ilara batean. Haustura puntuaren mugan gaudela uste dut. Osasun publikoko arazoetan nabari da: depresioa, estresa, antsietatea, obesitatea; bikotearen porrota, harremanak izateko zailtasuna. Eta badakizu zer den okerrera? Abiaduraren birusa haurrei kutsatu diegula. Ikasten dituzten lehenengo hitzak dira: "tira" eta "azkar". Haurren antsietatea oso ohikoa da gaur egun.

— Zer dio slow mugimenduak?

— Oso ideia erraza da: erritmo egokia bilatzea gauza bakoitzerako.

— Horren gauza erraza?

— Bai. Orain arte errailetan sentitzen genuen zerbait gaizki zebilela, baina beldurratigatik edo inertziatigatik, gero eta azkarrago jarraitzen genuen aurrera. Hala ere, gero eta jende gehiagok ikasten du martxak aldatzen. Eta, martxa aldatu ondoren, ikusten du bizitza ez dela desagertzen, lehen baino harreman hobeak dituela, hobeto jan eta hobeto lan egiten duela.

Bizitza aprobetxatzeko modurik onena abiadura moteltzea da, benetan. Presak aisialdia ere kolonizatu egin du. Denbora libreka daukagunean, zarataz eta entretenimenduz bete nahi dugu berehala. Beharbada ebasioa funtsezko galderari ihes egiteko modu bat da...

5. Lan dokumentua

Lan dokumentua Krisia, langabezia eta Caritasen borrokatu nahi dugun lana

Gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak dakartzan ondorio gaiztoak, xume bizitzearen ordeztu oparo bizitzea sustatzeagatik

Milioika langabeek ageriko errealitatea salatzen dute: gaur egungo eredu ekonomikoari axola zaion gauza bakarra da Merkatuen interesak asetzera eta Ekonomiaren zifrak salbatzea, eta horretarako hainbat pertsona sobera badaude, alde batera uzten dira, langabeziara eta pobrezia kondonatuta. Pertsonak ez dira aintzat hartzen, pertsonak Ekonomiaren eta Merkatuen onerako daude, eta gutxi batzuen diru-gosearen erruz gauzak okertzen direnean, sakrifikatu egiten dira sobera dauden pertsonak.

Irrotasunez aldarrikatu behar da pertsonaren ongiak lehentasuna duela Ekonomiaren eta Merkatuen "arimarik" gabeko interesen aurrean. Lana eta lanak sortzen duen onura gizakiaren ongiaren mende jarri behar da, eta ez gizakia lanaren eta Ekonomiaren onuren mende. (Ikus: *Laborem Exercens* 6)

Pertsona bati lanerako aukera kentzen edo eragozten diotenean, ukatu egiten diote duintasunez bizitzeko aukera, pertsona moduan errealizatzeko eta bera bizi den komunitatearen onerako jardutea.

Enplegua da pertsonok eta familiok daukagun bide nagusia diru-sarrerak eta bizi-baldintza egokiak lortzeko, besteentzako probetxugarri izateko, ondasun eta zerbitzu trukean parte hartzeko; izan ere, horixe dugu harreman-kapitalaren eta norberaren autoestimurako bermerik onena.

Langabeziak dakarren pobrezia gizakiaren duintasuna hondatzen du. "*Lanik gabe edo laguntza publiko nahiz pribatuaren mende luzaroan egoteak pertsonaren askatasuna eta sormena hondatzen ditu, baita familia- eta gizarte-harremanak ere, eta kalte handiak eragiten ditu maila psikologiko eta espiritualean*" (Caritas in Veritate, 25). Jendeak lana behar du, kontuak ordaintzeko, mahaira janaria ekartzeko eta etxea mantentzeko ez ezik, bere giza duintasuna adierazteko eta komunitatea aberasteko eta sendotzeko. (Ikus: *Gaudium et Spes*, 34)

Horregatik, lanaren inguruan dinamismo berri bat bultzatu behar da, "itxurazko" lana baten aldeko konpromisoa har dezagun denok. Zer esan nahi du "itxurazko" lanak? Benedicto XVI.ak bere Entziklikan (Caritas in veritate, 63) "itxurazko" lanaren zazpi ezaugarri ematen dizkigu:



1. Lan hori pertsona ororen berezko duintasunaren adierazpena izango da.
2. Lan horrek langileak benetan lotuko ditu bere komunitatearen garapenarekin.
3. Lan horretan langileak errespetatuak izango dira, eta saihestu egingo da diskriminazio oro.
4. Lan horrek familien beharrak asetzeko aukera emango du.
5. Lan horretan langileek libreki antolatzeko eta beren ahotsa entzunarazteko aukera izango dute.
6. Lan horrek nor bere sustraiekin aurkitzeko tartea utziko du, arlo pertsonalean, famili arloan eta arlo espiritualean.



Cáritasetik "itxurazko" lana sustatu eta horren alde borrokatzen gara, denok DUINTASUNEZ bizi ahal izateko, pertsona moduan ERREALIZATZEKO eta komunitatearen onerako LAGUNTZEKO. Horrela ulertu eta egiten den lana, xumetasunez bizi den lana, bizitza DUINA izateko beste asmorik gabe, ZORION iturri da, pertsonari duintasuna eta gizatasuna ematen diolako.

"Lanaren bidez, pertsonak bere burua errealizatzen du pertsona gisa. Pertsonago egiten da zentzu batean". (Laborem exercens, 9). "Lana bide egokia da giza duintasuna adierazteko eta handitzeko." (Elizaren Irakasbide Sozialen Bilduma, 287).

Cáritasen iritziz, xumetasun horrekin bizi den lanak zoriontsu egiten du gizakia. Hala ere, gaur egungo eredu ekonomiko eta sozialak, sobera dituen pertsonak alde batera utzi eta lan egiteko aukera ukatzeaz gain, gaiztotu egin du lanari ematen diogun zentzua eta helburu humanizatzailea, eta zorion-iturri izan beharrean lehia-iturri bihurtu da, eta horrek estresa, diru-gosea, gizatasuna galtzea, lanerako bizitza, familia eta giza harremanetarako denbora kentzea, etika eta balio moralak galtzea ekarri du, horren truke etekinak ateratzeko.

Eredu ekonomiko horrek txiki-txikitatik hezi eta eskolatu gaitu aberats moduan bizitzeko, kontsumo-gizartearen bidez eta etengabe bidaltzen dizkigun mezuen bidez. Horren ondorioz, lana etekina eta aberastasun pertsonala bilatzeko bitartekoa besterik ez da, gero eta diru gehiago irabazteko eta kontsumo-gizarteak eskaintzen digun guztia kontsumitu ahal izateko, geure ongizate munduan isolatuta oparo bizitzeko, horrexetarako egiten baitugu lan.

Lana ulertzeko modu horrek krisi honetara ekarri gaitu nolabait, zeren eta pertsona askok duintasunez bizitza hautatu beharrean, aberatsen moduan bizitza hautatu baitute. Pertsona gisa hazi eta errealizatu ordez, maila sozialean gora egin eta beren maila ekonomikoa erakustea hautatu dute. Eta bizi diren komunitatearen eta gizartearen onerako lan egin beharrean, beren onura eta ongizate pertsonala ziurtatzeaz eta handitzeaz baino ez dira arduratu, besteen onuraz axolatu gabe.

Horrela ulertzen den lanak ez du pertsona duin eta gizatiar bihurtzen; aitzitik, ingurune sozialaren gizatasuna galtzea dakar.

“Gizakiak bere lanean egiten dituen ekintzek bere gizatasuna gauzatzeko balio behar dute, bere gizatasunaren kariaz duen pertsona-bokazioa hobetzeko, hain zuzen.” (Laborem Exercens 6).

Cáritasetik ahotsa goratu eta salatu egin nahi ditugu, pertsona guztien duintasunaren eta garapen humanizatzailearen gainetik, gutxiengo baten interes ekonomikoak jartzen dituzten jokabide guztiak eta horien oinarrian dauden balioak. Horregatik, premiazkoztat jotzen dugu eredu Ekonomiko eta Sozial berri bat ezartzea, ardatz nagusia gizakiaren guztizko ongia izango duena, lanari bere benetako zentzua emango diona, hau da, pertsonaren zerbitzuan egotea eta denon duintasun eta zorion-iturri izatea. Utopia horrek ibilarazten eta mugiarazten gaitu.

Hausnarketa eta elkarrizketarako galderak

1. Dokumentutik zein ideia nagusi azpimarratu eta edo nabarmenduko zenituzke? Dokumentu hau irakurtzean, zer gogoeta, pentsamendu edo galdera sortu zaizkizu?
2. Duintasunez bizitzeko ala oparo bizitzeko gogoeta asetzeko egiten dugu lan edo nahi dugu lan egin? Zer ezberdintasun dago bi jarrera horien artean eta zer ondorio dute pertsonarentzat eta ingurune sozialarentzat?
3. Benedicto XVI.ak “itxurazko” lanaz ematen dituen 7 irizpideak kontuan hartuta, gaur egungo lanak, indarrean dauden lan-baldintzekin, betetzen al ditu irizpide horiek?
4. Zer egin dezakegu guk gaur egun bizi dugun lan-egoeraren aurrean?



6. Lan dokumentua

Caritasen ahotsak pobreziaren aurka

Larrialdi humanitario globalaren aurrean,
mobilizatu, inplikatu eta xume bizitzea aukeratu,
beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten.

“Hainbat herri gosez daudenean, hainbat etxek miseria sufritzen dutenean, oraindik hainbat eskola eraikitzeko daudenean, oraindik hainbat ospitale eraikitzeko daudenean, edozein agintarik edo herritarrek egin dezakeen diru-xahutze, eralketa edo zarrastelkeria oro, eskandalagarria eta guztiz bidegabea bihurtzen da.”

(Paulo VI.a, Populorum Progresio, 53)

“Milaka milioi gizon eta emakumeren pobrezia da, beste ezer baino gehiago, gure giza kontzientzia eta kristau kontzientzia interpelatzen duena.”

(Joan Paulo II.a, Bakearen aldeko Munduko Jardunaldia, 2000)

FAOren arabera, 2005ean, 848 milioi pertsona bizi ziren gose larrian, eta 2007an, 923 ziren. 2008an, ordea, elikagaien prezioan izandako krisiaren eraginez, okerrera egin zuen gosearen egoerak eta 1025 milioi pertsona zeuden gosez.

Desberdintasuna eta justiziarik eza onartu ezinezko neurrietara iritsi dira: ezmorala da gizateriaren zati bat bizi-baldintza duinak izateko aukerarik gabe egotea, eskubiderik oinarritzkoenak bete ezinik egotea. Areago, gaur egun desberdintasun horiek gutxitzeko baliabideak egonda. Pobrezia eta gosea amaitu daitezen lortzea posible da, historian lehenago izan ez den bezala. Frogatuta dago munduan egun ditugun baliabideekin munduko biztanle kopuruaren bikoitzarentzako ere elikagai nahikoa dagoela. Hala ere, 1.000 milioi pertsona gosez bizi dira, egunez egun.

Nazio Batuen kalkuluaren arabera, 44.000 milioi dolar behar dira urtero datozen 10 urteetan, Milurtekoaren Garapenerako Helburuak, lortzeko, eta muturreko gose eta pobrezia amaitzeko. Herrialdetik garatuenek 360.000 milioi dolar ematen dituzte urtero beren nekazaritzarako, nekazaritza-laguntzen bidez. Finantza-sistema salbatzeko gobernuek bankuei 2010ean emandakoaren %1 nahikoa izango litzateke munduan gosea erazteko. NBEk 1972an proposatu zuen bezala, herrialde garatuek urtero ekoizten duten aberastasunaren %0,7 emango balute herrialde txirotuaren garapenerako, gosea eta pobrezia desagertu egingo lirateke munduan.

Munduak uzten badu 1.000 milioi pertsonak egunez egun gosea pasa dezaten, esan nahi du pobrezia, ez gose faltagatik baizik eta elkartasun eta gizatasun faltagatik, pertsonon bihotza ere hartu duela. Gosez hiltzen den jendeak eta beste batzuk gosez hil daitezen uzten duen jendeak emergentzia humanitario orokorreko egoera batera garamatza, eta esku-hartzea premiazkoa da.

2000. urtean, Estatu eta Gobernu mailako 189 buruzagi bildu ziren Nazio Batuen Egoitzan eta Milurtekoko Deklarazioa sinatu zuten. 2015ean Milurtekoko Garapenerako Helburuak lortzeko beharrezko politikak garatzeko konpromisoa hartu zuten. Pertsonen eskubideak bete zitezten lortzea izan zen helburua. Gizateriari egindako promesa izan zen, eta promesa hori bete dadin eskatu behar dugu, hitzetan geratu ez dadin.

Milurtekoko Garapenerako 1. Helburuan, "muturreko pobrezia eta gosea erdira murriztea", gainerako Helburu guztiak laburbiltzen dira. Milurtekoko garapenerako zortzi helburu horietako lehenengoa gosea eta pobrezia mundutik erazte da, eta hala ere, egiteko horrek ez du aurrerapauso handirik lortu; are gehiago, leku batzuetan atzera egin da. Aukeraz betetako mundu batean gosez hiltzea eskandalu onartezina da, eta eskubide oinarrizkoena ukatzea: Elikadurarako eskubidea.

Estatuei eta horiek osatzen dituzten Nazioarteko Erakundeei dagokie gutxiegitasun horiek zuzentzea; horrela, nazioarteko harremanak sortu eta Giza Eskubideekiko errespetuaren helburu nagusiarekin lan egiteko aukera bideratu beharko genuke. Baina pertsonen ardura ere bada, banaka edota gizarte erakundetan bilduta, desberdintasun horiek zuzentzen laguntzeko ekintza zuzenak bideratzea. Ekintza horien artean egon behar dira, ez soilik gure anai-arrebekin ondasunak partekatzea, baita gizartean aktiboki parte hartzea ere, gure bizitza propioan eta gure gobernuen politiketan beharrezko aldaketak sustatzeko.

Milioika pertsona bizi dira dolar bat baino gutxiagorekin egunean, eta egiten duten gauza bakarra bizirauten saiatzea da. Profeziaren sasoia da, geure ahotsa entzunaraztekoa, salatu eta indignazioa erakustekoa. Kontsumoan, xahutzean, eta zenbat eta gehiago eduki nahi izate horretan zentratutako bizi estilo horiek alde batera utzi behar ditugu. Sistemarekiko inkonformistak izateko umea da, XUMETASUNAREN aktibista bihurtuz, kontra eginez, xume biziz, beste batzuk bizi ahal izateko.

Emergentzia egoera globala da, gizarte etikoki arduratsuak izateko galderak berreskuratzeko deia: Non dago sufrimendua? (Mt 25,37-40). *"Ezin dugu munduan dagoen giza sufrimendua ahaztu."* (Benedicto XVI, Gazteen Munduko Jardunaldia, 2011).


Hausnarketa eta elkarrizketarako galderak

1. Dokumentutik zein ideia nagusi azpimarratu eta edo nabarmenduko zenituzke? Dokumentu hau irakurtzean, zer gogoeta, pentsamendu edo galdera sortu zaizkizu?
2. Zein erantzukizun maila daukate agintariek, botere ekonomikoko taldeek eta herritarrek, muturreko pobrezia eta gosea erazteko helburuaren bete-mailan atzera goazen egoera honetan?
3. *"Bizitza oso arriskutsua da. Ez oker jokatzeko duten pertsonengatik, zer gertatzen den ikustera esertzen diren pertsonengatik baino."* (Albert Einstein) *"Ez naute mintzen pertsona gaiztoen ekintzek, pertsona onen axolagabekeriak mintzen nau."* (Martin Luther King). Zer iradokitzen dizute esaldi horiek, lantzen ari garen gaiarekiko? Herritarren zein jarrera motak ahalbidetzen dute gauzek berdin jarraitzea, eta zeintzuek ahalbidetzen dute egoerak norabide ona hartzea eta Milurtekoko Garapen Helburuak bete ahal izatea, ekintza edo jarrera horiek oso txiki eta xumeak badirudite ere?
4. Zer egin dezakegu guk zehazki, talde bezala eta maila pertsonalean, gure munduan dagoen giza sufrimenduari kasurik egiten ez dioten horiek bezalakoak ez izateko? Egizue ekintza eta portaera zehatzen zerrenda bat, gauza txikiak badira ere, eta aukeratu zeintzuk betetzeko prest zaudeten, gutxienez hilabetez.

Cáritasen otoitz proposamena


Komunitate eta taldeen otoitzerako gidoia

XUMETIASUN otoitza



Lekua girotzeko

Otoitz egiteko lekuan Jesusen irudi bat jarriko dugu, piztutako bela batzuez inguratuta. Argazkiaren oinetan Biblia bat egongo da, zabalik, oihal batzuen gainean. Eta bertatik paper jarrai bat irtengo da (edo paper zurizko mantel bat), 4 metro inguruko luzerakoa eta 50 zentimetroko zabalera, paper-lerroan zehar pentagrama bat marraztuta daukana. Pentagrama horren gainean errotuladore batzuk utziko dira, jendeak otoitzaren une batean idatzi ahal izateko.



Bibliaren ondoan otzara bat jarriko da, eta barruan paperezko etiketak moztuta, gidoi honen amaieran dauden Bibliako pasarteekin. Otoitzera joango direla aurreikusten dugun pertsona adina etiketa jarriko ditugu (pasarteak errepikatu ahal dira). Nahi izanez gero, nota musikalak moztu daitezke kartulinan, eta pasarte biblikoa dagoen etiketara itsatsi edo lotu.

Bertaratzen direnei Bibliako testua jasota dagoen orri fotokopiatu bat entregatuko zaie, "Erakutsi Jauna zeure bideak" otoitzarekin, eta xumetasun ebanjelikoaren hausnarketari buruzko testua, eta Jainkoaren presentziaren doinua entzungo dugu.

Girotzeko musika jartzea komeni da, norberaren baitan bildurik otoitz egiteko.

OTOITZAREN GARAPENA

(1. irakurlea:)

Gaur geure Aita-Ama den Jainkoak gutako bakoitzari zerbait berezia esan nahi digu. Barne-isiltasunera gonbidatu nahi zaituztet, burua erlaxatu eta gure izatearen barneko gelarik sakonenera biltzera, gure izatearen alderik intimoena bizi den lekura, gudan bizi den eta itxaroten gaituen Jainkoaren presentzia ere badagoen leku horretara.

Isilarazi buru eta bihotza. Une honetan Jesusen izena errepikatzeko eskatuko dizut, gero eta lasaiago arnasa hartzen duzun bitartean, zure buru eta bihotzean entzuten den bakarra bere izena izan dadin. Egizu hori bost minutuz, zure izpiritua lasaitzeko eta zure bizitzari heldu eta zurekin bizi den Horrengan zentratzeko.

(5 minutu inguru igarota, irakurlea jaikiko da eta Jesusen irudiaren oinetan dagoen Biblia hartuko du, testu hau bertatik irakurtzeko:)

Nazareteko Jesusen Berri Onaren gainean, San Mateoren arabera:

"Ezin da inor bi nagusiren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maite, edota batari men egingo dio eta bestea begitan hartuko. Ezin zaitezke Jainkoaren eta diruaren morroi izan".

"Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jan edo edango, edota gorputza zerez jantziko. Ez ote da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira aireko hegaztiei: ez dute ereiten,



ez uztarik biltzen, ez mandioan pilatzen; hala ere, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez ote duzue horiek baino askoz gehiago balio zuek? Askok arduratu arren, zuetako nor luza lezake bizitza apurtxo bat ere?"

"Eta jantziak, zertan kezkatu? Begira nola hazten diren loreak zelaietan: ez dira lanean penatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen jantzen horietako baten pare. Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela jantzen badu, ez ote askoz gehiago zuek, sinesmen gutxiok? Ez kezkatu, bada, zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Fedegabeak arduratu ohi dira horiez guztiez; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra duzuen. Ardura zaitezte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak. Ez arduratu, bada, biharko egunaz, biharkoak ere ekarriko baitu bere ardura. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhaustek."

(Mt 6,24-34)

(Une labur batez isilik egon ostean, 1. irakurleak esango du:)

Orain "Erakutsi zure bideak" izenburua duen otoitza irakurriko dugu, bi ahotsetan. Elkarrekin adierazi ostean, isiltasun minutu batzuk utziko ditugu, eta gure arnasketaren bidez Jesusen izena esaten jarraituko dugu.

Otoitza: **Erakutsi, Jauna, zure bideak**

*Erakutsi, Jauna, zure bideak,
Xumetasun ebanjelikoaren bideak;
Zure benetako bideak,
Azaldutako eta eskainitako zure bideak,
Seguruak, garbiak eta anaitasunezkoak,
Erreinuko zure bideak,
Zure Probidentzian konfiantza hartuta utzitako zure bideak.*

*Erakutsi zure grazia, brisa eta bizitzaz jositako bideak,
Zure bide maiteenak,
"derrigorrez egin beharreko" zure bideak,
Propagandak eskaintzen digunari
Kontra eginez egindako bideak,
Bizitza partekatu eta eskuzabalean egindako bideak,
Elkarrekin egindakoak
Eta zure anaitasunezko etxearen atarira eramaten gaituztenak.*

*Eraman nazazu bake eta justiziazko zure etorbideetatik,
Zure errotonda solidario eta gizatiarretatik,
Askatasun eta duintasunaren autopistetatik,
Soiltasun eta pobreziaren abelbideetatik,
Utopia eta nodedadeen bidexketatik,
Eta beharrezkoa bada, zelaietan zehar, zure urratsei jarraituz
Errukiaren eta gupidaren kale nagusitik.*

*Eta zure anaitasunezko etxeko atera heltzean,
Neure burua garbitu eta atarian atsedean hartu dezadan,
Zure deia entzun, eta sartu
Zurekin batera jan eta edateko,
Eta zuk eta zure lagunek prestatutako otorduan
Seme-alaba naizela sentitu.
Erakutsi, Jauna, zure bideak,
Xumetasun ebanjelikoaren bideak;*

(5 minutu pasata, 1. irakurleak esango du:)

Jesusen ebanjelioa xumetasun ebanjelikoan bizitzen jarraitzeko etengabeko gonbidapena da. Xumetasunez bizi den norbaiten bizitzaren ezaugarrietako bat zera da, Jainkoaren esku bizi dela, gogoa erabat beragan jarrita, bere amaren besoetan dagoen haurra bezala. Etorkizunak ez du beldurtzen.

Egunez egun egunerokotasunaren hari musikal etengabea entzuten du, eta Jainkoa bertan dago, bere nota musikalak entzunarazten, bizitzako zirkunstantzia eta gertaera txiki askoren bidez; pertsona eta xehetasun askoren bidez (topaketa bat, hitz bat, irribarre bat, keinu bat...); Ama Naturak ematen dizkigun hainbeste opariren bidez (eguzkiaren berotasuna, arnasten dugun airea, txorien kantua, zuhaitzen itzala). Eta bihotzetik ernatzen diren hainbeste sentimendu, sentsazio edo emozioen bidez.

Pertsona xumeak Jainkoaren presentziaren doinua entzuten du, inguruko elementu eta gertaera guztietan.

Entzuten al dugu gure bizitzan etengabe jarraitzen duen Jainkoaren hari musikal hori, edo beste barik aurrera egiten dugu, burua beste kontu askorekin beteta, presaz betetako gure munduan, asunto garrantzitsu eta urgenteez hartuta, geure kezka eta pentsamenduekin arduratuta?

Irakurri arretaz Washington Post egunkariak 2007an egin zuen proba honen berri. Jainkoa metaforikoki egiten ari da gurekin proba hori bizitzako egun guztietan, gauden eta mugitzen garen leku guztietan.

(3. irakurlea:)

Goiz hotz batean, Washington-go metro geltokian, biolin-jotzaile batek Johann Sebastian Bach-en sei pieza interpretatu zituen, ordu betez. Denbora horretan, gutxi gora behera 1.000 pertsona pasa ziren bere ondotik. Batzuek dirua eman zioten, beste askok ez zioten begiratu ere egin.

Bere interpretazioa hasi eta hiru minutura, adin ertaineko gizon batek geldialdi bat egin zuen bere bidean, baina segundo batzuk igarota, presaz ekin zion berriro bere bideari. Lau minutu beranduago, biolin-jotzaileak bere lehenengo dolarra jaso zuen, entzutera gelditu ez zen emakume baten eskutik. Sei minutu igarota, gazte bat hormaren kontra jarri zen entzutera, baina erlojuari begiratu eta aurrera jarraitu zuen. Handik hamar minutura, ume txiki bat poz-pezik gelditu zen musikariari entzutera, baina bere ama presaka zebilen eta arrastaka eraman zuen. Gauza bera gertatu zen beste ume batzuekin; bere gurasoek ez zieten gelditzen utzi, presa zeukatelako. Pieza eder batzuk ordubetez etengabe jotzen aritu ostean, musikariak amaitutzat eman zuen metroko interpretazioa.

Denbora horretan 7 pertsona soilik geratu ziren entzutera, eta 32 dolar bildu zituen guztira. Inork ez zuen txalo egin, emakume batek bakarrik ezagutu zuen, harrituta.

Inork ez zekien, ezta metroko agintariak ere, baina arropa deigarririk gabe jantzitako biolin-jotzailea Joshua Bell zen, munduko biolin-jotzailerik onenetakoen artean dagoena, eta leku horretan bertan inoiz idatzitako piezarik konplikatuenetako bat interpretatu zuen, hiru milioi eta erdi dolar balio zituen 1713ko Stradivarius batekin...

Bi egun lehenago, Joshuak Boston Symphony Hall ospetsuan jo zuen, eta sarrera guztiak agortu ziren. Sarrera bakoitzak 100 dolarreko kostua zuen, eta ilara handiak egin ziren horiek erosteko, inork ez zuelako munduko biolin-jotzaile onenari entzuteko aukera galdu nahi. Bostongo kontzertu horretan, Joshua Bellek Washington-go metroan jo zituen pieza berberak jo zituen.



(1. irakurlea:)

Jainkoaren presentziaren doinua etengabe jotzen ari da, behin eta berriz, gure inguruan eta gure barnean. Musika horrek harrapatu egiten gaitu eta bizitzan laguntzen digu, eguneroko zirkunstantzia eta gertaera askotan... ez badiogu xumetasunez entzuten, umeez bezala, konturatu gabe egingo dugu aurrera, eta ez ditugu oparitzen dizkigun Hitzen soinuak entzungo.

Une horietan, Jainkoaren musika hau gutako bakoitzarentzat ari da jotzen. Orain, nota musikalez betetako otzara bat pasako da; Jainkoa gutako bakoitzarentzat oraintxe jotzen ari den musika da; bakoitzak nota musikal bat hartuko du, eta Jainkoaren Hitz bat idatzita dagoela ikusiko du, berarentzako pertsonalizatuta. Irakurrita, imajinatuko du Jainkoa dela Hitz hori berari esaten diona, bizitzaren une honetan. Bere golgorako errepikatuko du behin eta berriro, 12 bat minutuz.

(Nota musikalak dituzten txarteltxoak moztuta eta gidoiaren amaieran agertzen diren pasarte biblikoak dauden otzara pasatuko da)

(12 minutu pasata, 1. irakurleak esango du:)

Hemendik aurrera, nahi duena, otoitzaren isiltasuna mantenduz, lurrean dagoen pentagraman idazteko jaiki ahal izango da, eta Jainkoari zuzendu nahi dizkion hitzak idatzi ahal izango ditu, berak txartelean jasotako hitzari erantzunez.

(Inor gehiago ez denean jaikitzen pentagraman idazteko, 1. irakurleak gainerakoei eskatuko die nota musikalean egokitu zaien pasarteak irakurtzeko)

(Guztiek beren esaldia esanda daukatenean, 1. irakurleak zera esango du:)

- Une honetan, norbaitek eskaeraren bat egin nahi badu, eskerrak eman edo otoitz honetan bizitako zerbait partekatu, orain da unea.
- Amaitzeko, elkarrekin otoitz egingo dugu, eskutik helduta, Jesusek irakatsi zigun otoitza, eta hori egin ostean, bakea emango diogu elkarri, besarkada baten bidez: Aita gurea...



(Moztu eta otzaran jartzeko zita biblikoak. Nahi izanez gero, nota musikalak moztu daitezke kartulinan, eta pasarte biblikoa dagoen etiketara itsatsi edo lotu.)

	Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere. (Jn 14,1)	
	Agurtzerakoan, bakea, neure bakea, ematen dizuet; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez izan beldur. (Jn 14,27)	
	Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait niri itsatsia badago, ni berari bezala, horrek fruitu asko emango du. (Jn 15,5)	
	Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela. Nire izenean Aitari eskatuko diozuen guztia, eman egingo dizue. (Jn 15, 16)	
	Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet. (Jn 20, 21)	
	Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten. (Mt 5,16)	
	Zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitizuet. (Jn 15,15)	
	Nik, Jaun honek, salbamen-ekintzarako dei egin dizut eta eskutik heldu. (Is 42,6)	
	Itxaron Jaunarengan! Eutsi gogor, izan kemen! Itxaron Jaunarengan! (26. salmoa)	



	Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin. (Lc 1,28)	
	Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako! (Lc 1, 45)	
	Ardura zaitetze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, ta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak. (Mt 6, 33)	
	Zatozte niregana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedeen. (Mt 11, 28)	
	Lasai! Neu naiz. Ez beldurtu! (Mt 14, 27)	
	Ez izan beldurrik; zuk sinetsi. (Mc 5, 36)	
	Dena ahal du sinesten duenak. (Mc 9, 23)	
	Lehena izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria. (Mc 9,35)	
	Sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, Ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango. (Mt 17, 20)	

	Utzi Jaunaren esku zeure zoria, izan konfiantza haren- gan: berak ekingo dio zure alde. <i>(Sal 37, 5)</i>	
	Jarraitu niri. <i>(Mt 9, 9)</i>	
	Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan. <i>(Mt 10, 7)</i>	
	Eutsi sendo, izan bihotz, Jaunarengan itxaron duzuenok! <i>(Sal 31, 25)</i>	
	Jaunarengan konfiantza duena, berriz, haren maita- sunak inguratzen. <i>(Sal 32, 10)</i>	
	Irakatsi egingo dizut eta jarraibidea erakutsiko; aholku emango dizut eta zure ardura izango. <i>(Sal 32, 8)</i>	
	Neu nauzu salbatzaile! <i>(Sal 35, 3)</i>	
	Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz. <i>(Mt 22, 37)</i>	
	Eta ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte. <i>(Mt 28, 19)</i>	



	Izan sinesmen Jainkoarengan. (Mc 11, 22)	
	Munduan larrialdirik izango duzue; baina izan adore! Nik garaitua dut mundua. (Jn 16, 33)	
	Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin. (Lc 3, 22)	
	Izan zaitetze errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala. (Lc 6, 36)	
	Jarraitu niri. (Jn 1, 43)	
	Zugan bizi naiz, eta zu nigan. (Jn 6, 56)	
	Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar. (Jn 13, 34)	
	Iraun tinko nire maitasunean. (Jn 15, 9)	
	Nire lekukoa izango zara. (Jn 15, 27)	

Hileroko KEINU-EKINTZAREN proposamena

8 kanpai-hots beste mundu bat posible egiteko

Motibazioa eta helburua

Besteek bizitzeko aukera izango badute, gure bizimodua aldatzeaz gain, mobilizatu eta justizia exijitu behar dugu. Keinu honen xedea da parrokiako komunitateak Milurtekoko Garapen Helburuen gaineko kontzientzia hartzea, eta komunitate horrek mundu hobe bat posible egiteko duen borondatea eta konpromisoa publikoki ikusarazteko bidea ematea. Keinu-ekintza hau hilean behin egitea proposatzen da. (Ikastetxeetan edo elkarreetan ere egin daiteke).

Lekua: Elizako Plaza, atearen aurrean, sarreran edo Elizako patioan (edo Elizaren barnealdean, bestea ez bada posible).



Giroetzea eta beharrezko materiala

1. Kartel edo pankarta bat egitea, honako esaldiarekin: **“8 kanpai-hots bestelako mundu baten alde”**
Kartel hau ondo ikusteko moduan egongo da, keinua egingo den lekuan.
2. Parrokiako kanpandorreko kanpaiak erabiltzeko baimena izatea, dagokionean 8 kanpai-hots jotzeko. Kanpandorrikerik ez izatekotan, kanpaia “eramangarri” bat lortzen saiatzea, hori jotzeko. Edo kanpaiaren soinua kasete batean grabatuta edukitzea.
3. Lur planeta apurtuta agertzen den marrazki bat, kartulina edo paper zati bitan.
4. Kandela bat.
5. Folio edo A3 tamainako sei kartel, hitz hauek idatzita dituztenak: Elikadura, Hezkuntza, Osasuna, emakumeentzako aukera Berdintasuna, Giza Garapena, Ingurumen arloko Iraunkortasuna. Kartel horiek ekitaldira doazen 6 pertsonaren artean banatuko dira.
6. Egokiena megafono edo megafonia eramangarria jartzea izango litzateke. Posible ez bada, keinuaren animatzaileak ahots sendoa izan dezala, denek ondo entzuteko.
7. Keinua baino aste bat lehenago orria parrokiari jartzea, edo webgunean edo parrokiako ohar taulan, jendeari parte hartzeko deia eginez. Katekista eta parrokia-taldeetako arduradunei esatea, abisua eman dezaten.




Keinu-ekintzaren garapena

(Keinu-ekintzaren animatzailea:)

Besteek bizitzeko aukera izango badute, gure bizimodua aldatzeaz gain, mobilizatu eta justizia exijitu behar dugu. Milioika anai-arreba bizi dira pobrezia eta beharrian egoeran. Haiekin bat egin eta gure ahotsa entzun dadin nahi dugu.


Bizi garen munduan muturreko pobrezia eta gosea daude, eta hori ONARTEZINA da.

(Une honetan bi pertsona irtengo dira, bakoitzak mundu apurtuaren zati bat daramala, eta lurrian utziko dute keinu-ekintzaren animatzailearen aurrean, edo bestela erdian, denak bilduta dauden lekuan.)



(Keinu-ekintzaren animatzailea:)

2000. urtean, 189 Estatu eta Gobernuburuk Nazio Batuen Milurtekoaren Adierazpena sinatu, eta Milurtekoaren Garapenaren 8 Helburuak betetzeko konpromisoa hartu zuten, pobrezia eta gosea erazteko. 2015a jarri zuten horiek betetzeko epemuga bezala. Helburu bakoitza mundu honetarako itxaropen argi bat zen.



(Une honetan pertsona bat irtengo da itzalitako kandela bat eskuetan daramala, eta mapa apurtuaren gainean utziko du)

(Keinu-ekintzaren animatzailea:)


Baina egia esan agintariek ez dute ia ezer egin horiek betetzeko, eta are gutxiago krisi sasoiari. 2000. urtean piztu zen itxaropen argia itzali egin da, horregatik daukagu guk kandela itzali hau.

Gure agintariei eskatu nahi diegu gizakion familia osoak eskubide hauetaz gozatzea posible egin dezaten: ELIKADURA, HEZKUNTZA, OSASUNA, EMAKUMEENTZAKO AUKERA BERDINTASUNA, GIZA GARAPENA, INGURUMEN ARLOKO IRAUNKORTASUNA.

(Animatzaileak 6 hitz horietako bat izendatzen duenean, dagokion kartela daukan pertsonal altxatu egingo du, eta mapa apurtuaren gainean utziko du.)

(Keinu-ekintzaren animatzailea:)

Orain **8 kanpai-hots** entzungo dira, Milurteko Garapen Helburu bakoitzeko bat. Kanpai-hots horiek agintariei gogorarazi nahi diete Milurteko 8 Helburuak ez direla bete, eta betetzetik urrun daudela, beren borondate politiko faltaren erruz. Era berean, herritarroie ere gogorarazi nahi digute gure agintariei eskatu behar diegula 2000. urtean egin zuten promesa betetzeko, eta guk geuk bizimodu xume eta solidarioa izan behar dugula.



8 kanpai-hotsek jo bitartean, eskua emango diegu elkarri, giza kate bat sortzeko, eta minutu bateko isiltasuna egingo dugu, gure egungo Eredu ekonomikoak eragindako pobrezia biktimgatik.



(Zortzi kanpai-hots eta minutu bateko isiltasunaren ondoren, animatzaileak zera esango du:)

Keinu hau amaitzeko, otoitz hau irakurriko dugu:

Jainko maitea:

*Ireki gure begi eta bihotzak
 Pobretutako zure seme-alaba bakoitzarengan ikusi zaitzagun.
 Onartu dezagun elkartzen gaituzten loturak badaudela,
 Eta onar dezagun sortu egin gaituzula
 Familia errukior eta parte-hartzaile bateko senide izateko.
 Ireki gure bihotzak gure anai-arreben beharriaz erantzun diezaiegun
 Pobreziaren, langabeziaren eta itxaropen ezaren ondorioak sufritzen ari baitira...
 Eta mugiarazi gure espiritua, bihotzez erantzun bat eman ahal izateko.*

*Injustiziaren aurrean sentitzen dugun indignazioa
 Konpromisozko maitasun bihur ezazu,
 Eta emaguzu indarra lanean has gaitezen.
 Mugitu gure bihotzak entrega eskuzabal bat egin dezagun,
 Eta bizimodu xumea izan dezagun,
 Bestelako gizarte bat eta bestelako mundu bat posible izan daitezen
 Zure Erreinuan bezala.*

(Animatzaileak keinu-ekintza amaituko du, bertaratutakoei hurrengo hilabetean ere keinu-ekintzan parte hartzeko gonbita eginez)



Caritas

www.caritas.es